

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA



Elkar hartuta

ekin Gipuzkoari



EDUKIEN AURKIBIDEA

1) Dokumentuaren aurkezpena	1
2) Abiapuntua eta Gipuzkoaren erronkak.....	3
2.1 Egungo egoera	3
2.2 Gipuzkoarentzat lehentasuna duten garapen eremuetako arriskuak eta desafioak	5
2.3 Gipuzkoaren erronkak	8
2.4 Erakundearen erronkak eta balioak.....	10
3) 2024-2027rako estrategia.....	12
3.1 Etorkizunerako Gipuzkoaren balioak eta ikuspegia	12
3.2 Jarraibide estrategikoa	16
4.1 Helburu estrategikoak eta ekintza lerroak	26
4.2 Zeharkako gaitzaileak eta politikak	50
5) Plana kudeatzeko eredia	53
5.1 Gobernantza eredia	53
5.2 Jarraipena, ebaluazioa, egokitzapena eta kontu-ematea	56

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Gipuzkoako egungo egoeraren alde aipagarriak.....	3
2. taula. GFAk etorkizunean aurre egin beharko dien arrisku nagusiak.....	6
3. taula. Etorkizunerako erronkak GFarentzat, munduko joeren arabera	7
4. taula. Helburu estrategikoen ekarpena GJHei	23
5. taula. I. zutabeko helburu estrategikoak	26
6. taula. 1.1 helburua	27
7. taula. 1.2 helburua	28
8. taula. 1.3 helburua	29
9. taula. 1.4 helburua	30
10. taula. II. zutabeko helburu estrategikoak.....	31
11. taula. 2.1 helburua	32
12. taula. 2.2 helburua	33
13. taula. 2.3 helburua	34
14. taula. 2.4 helburua	35



15. taula. 2.5 helburua	36
16. taula. III. zutabeko helburu estrategikoak.....	37
17. taula 3.1 helburua	38
18. taula. 3.2 helburua	39
19. taula. 3.3 helburua	40
20. taula. 3.4 helburua	41
21. taula. IV. zutabeko helburu estrategikoak.....	42
22. taula. 4.1 helburua	43
23. taula. 4.2 helburua	45
24. taula. 4.3 helburua	46
25. taula. 4.4 helburua	47
26. taula. 4.5 helburua	48
27. taula. 4.6 helburua	49
28. taula. 1. zeharkako gaitzailea	50
29. taula. 2. zeharkako gaitzailea	51
30. taula. 1. zeharkako politika	51
31. taula. 2. zeharkako politika	52
32. taula. 3. zeharkako politika	52
33. taula. Testuinguru adierazleak. I. zutabea	57
34. taula. Emaidza adierazleak. I. zutabea	59
35. taula. Testuinguru adierazleak. II. zutabea	61
36. taula. Emaidza adierazleak. II. zutabea	62
37. taula. Testuinguru adierazleak. III. zutabea	64
38. taula. Emaidza adierazleak. III. zutabea	66
39. taula. Testuinguru adierazleak. IV. zutabea	68
40. taula. Emaidza adierazleak. IV. zutabea	71
41. taula. Emaidza adierazleak. Zeharkako gaitzaileak	73
42. taula. Emaidza adierazleak. Zeharkako politikak.....	75



IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Gipuzkoaren erronkak	9
2. irudia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronkak.....	10
3. irudia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren balioak.....	11
4. irudia. Gipuzkoaren balioak.....	12
5. irudia. Gipuzkoako ikuspegiaren ardatzak	15
6. irudia. Jarraibide estrategikoa.....	16
7. irudia. Gobernantza eredua.....	55



1) DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

Munduan azken urteetan nagusitzen joan diren eta muturrekoak diren ereduaren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldearen etorkizunaren eraikuntza elkarlanean eta lankidetzan ardaztu du. Egiteko era honen emaitza da, hain zuzen, honako dokumentu hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa, alegia.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa aurkezten eta zehazten hasi aurretik, ezinbestekoa da zein logika eta lan esparruen baitan eraiki den azaltzea. Honela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategiko hau Etorkizuna Eraikizun markoaren eta printzipioen arabera eraiki da. Hau da, gobernantza irekiaren logika batean, administrazio publikoaren, enpresa sarearen, ezagutza eragileen eta gizarte zibilaren arteko zeharkako lankidetzaren balioesten duena, abiapuntutik helize laukoitzaren eredupean. Lankidetzaren lanaren eredu horren ildotik, nabarmendu behar da proposatutako helburu estrategikoak sektoreen arteko eta departamentuen arteko ikuspegi batetik abiatzen direla, eta, horrek, orain arte erabili izan den departamentuen logika hausten dutela.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategiko hau eraikitzeke landu den diagnosi analitiko eratorritzen den lurraldearen abiapuntua eta erronkak finkatzen dira lehenik. Era berean, azterketa eta hausnarketa horren eskutik erakundearen beraren erronkak eta balioak finkatu dira. Analisi hori estrategiaren oinarri izanik, eta Gipuzkoako estrategikoaren lema izango den ikuspegia eta balioak erdigunean jariz, erronka horiei aurre egiteko eraiki den jarraibide estrategikoa aurkezten da, banan-banan, jarraibide hori osatzen duten elementu guztiak zehaztuz eta definituz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren hezurdura dugun hau aurkeztu ostean, helburu estrategikoak eta ekintza lerroak zehazten dira, eta, azkenik kudeaketa nola gauzatu den jasotzen da, besteak beste gobernantza ereduaren xehetasunak azalduz.

Plan hau partaidetzan oinarritutako lan prozesu bizi baten bidez prestatu da. Jarraian, Diputatuen Kontseiluko kideekin eta ordezkari politiko eta teknikoekin plan hau eraikitzeke egin diren lan jardunaldiak eta elkarrizketak jasotzen dira:

- Hiru lan saio Diputatuen Kontseiluko kideekin. Saio horietan Gipuzkoaren eta Foru Aldundiaren erronkak eta balioak jorratu ziren, baita helburu estrategikoak eta ekintza lerroak ere.
- 46 elkarrizketa egin dira Foru Aldundiko ordezkari politikoekin, sektore publikoko erakundeetako arduradunekin, Gipuzkoako Batzar Nagusietako 5 batzarkide taldeetako ordezkariekin eta lurraldeko 11 eragile ekonomiko eta sozial esanguratsuekin, lurraldearen egungo egoera egiaztatzeke.
- Bi tailer egin ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari politiko eta teknikoekin, Miramar jauregian, 67 pertsonarekin bata eta 69 pertsonarekin bestea. Diagnostikoa kontrastatzeaz gain, erronkei eta balioei buruz hausnartu zen, eta helburu estrategikoak eta ekintza lerroak landu ziren.
- Gipuzkoako udalei zuzendutako inkesta eta lan saio bat, Gipuzkoak dituen erronkei eta Foru Aldundiak udalerriekin dituen harremanei buruz duten ikuspegia jasotzeko.



- Herritarren iritzi-soziometroa, non galdera espezifikoak sartu ziren Gipuzkoak aurre egin behar dizkion erronkak identifikatzeko.
- 13 mahai tekniko osatu dira, bi erronda eginez, jarraibide estrategikoa osatzen duten zutabeetan jasotako helburu estrategikoak, ekintza lerroak eta adierazleak lantzeko.
- 12 lan mahai Loiolako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa kanpoko eragileekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari politiko eta teknikoekin kontrastatzeko (105 pertsonak parte hartu zuten).

Lan esparru honetan Foru Aldundiaren nahiz hau osatzen duten teknikarien eta politikarien gaitasunak garatzen eta sakontzen doazela ere, Etorkizuna Eraikizen heldutasuna eta garapen maila handitzen joan dira azken urteotan. Esaterako, zeharkako proiektuak burutzen ari dira eta politika publikoak elkarrekin sortzea lortu da, eta Think Tank-ak zeregin nabarmena izan du. Etorkizuna Eraikiz fresna bizia da eta datozen urteetan zaindu beharreko esparruak identifikatzen ditu bere horretan. Besteak beste, programen zeregina indartzea, politika publikoak diseinatzeko, garatzeko eta finkatzeko eredu gisa, jardun biko kudeaketan aurrera egitea, interes talde berriak sartzeko eta aniztasuna bermatzea edota Etorkizuna Eraikiz ereduak modu integratuean bereganatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan.

Legealdi berri honetan ziklo berri bat ireki da politikaren kudeaketan eta politika publikoen kudeaketan berritzeko. Eraberritze horretan, ondoko hauetan sakondu beharko da: Etorkizuna Eraikizen ikuspegi sistemikoa, Foru Aldundiaren barneko kultura aldaketa, herritarren parte-hartzea sustatzea, maila anitzeko gobernantza, ebaluazioa indartzea eta, azkenik, komunikazioa eta sozializazioa. Jauzi kualitatiboa da, beraz, Foru Aldundiarentzat Plan Estrategikoaren lanketaren baitan lan logika hau aurrera eramanez izana. Eta, are gehiago, handitu egingo dira anbizio eta erronka maila horiek, Planaren formulaziotik haratago joatean, eta haren gauzatzea nahiz gobernantza ereduak lan esparru eta balio hauetan eramanez nahi da. Entzutea, esperimintatzea eta jardutea, Etorkizuna Eraikiz ereduaren oinarri diren horiei guztiei ekitea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategiko honetan, alegia.

2) ABIAPUNTUA ETA GIPUZKOAREN ERRONKAK

Gipuzkoaren abiapuntua zein den eta hurrengo urteetan aurre egin beharko dituen erronkak zein diren zehaztu ahal izateko, estatistiken eta bestelako informazio iturrien bilteta, berrikusketa eta analisisa burutu da. Horretarako, beraz, lehenik lurraldearen egungo egoera zein den zehaztea ahalbidetzen duten aldagai ezberdinen azterketa burutu da eta, jarraian, Gipuzkoaren jarduteko agertokian azaltzen diren arrisku nagusiak zehaztu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak aurre egin beharko dizkion desafioak finkatuz. Horietatik guztietatik, beraz, ondorioztatu ahal izan dira lurraldearen nahiz Foru Aldundiaren erronkak 2024-2027 aldirako.

2.1 EGUNGO EGOERA

Lurraldeari dagokion abiapuntua eta erronkak zein diren zehazteko lehen pausua dugu jarraian azaltzen diren bost dimentsioetan (demografia, ekonomia, gizartea, lurraldea eta ingurumena eta teknologikoa) egindako analisi kuantitatibo eta kualitatiboak:

1. taula. Gipuzkoako egungo egoeraren alde aipagarriak

GIPUZKOAK EGUN DUEN EGOERAREN ALDE AIPAGARRIAK	
DEMOGRAFIA	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>Biztanleriaren bilakaera:</i> Gipuzkoako biztanleria % 0,08 jaitsi zen 2019-2022 aldian, munduko biztanleriaren bilakaeraren kontra, % 3,72 hazi zena aldi berean. Eskualdeen araberako bilakaerari erreparatuz gero, jaitsiera nabarmenagoa ikusten da Debararrenan (% -1,50), Debagoienan (% -1,1) eta Goierriin (% -0,7). Tolosaldean, Donostialdean, Bidasoaldean eta Urola Kostan, aldiz, biztanle kopuruak gora egin du: % 0,36, % 0,3, % 0,27 eta % 0,05, hurrenez hurren. 2022an Gipuzkoako biztanleriaren % 45,65 Donostialdean kontzentratu zen, eskualdeko dinamismo handiagoaren eta biztanleria hiriguneetan kontzentratzeko joera orokorraren isla.▪ <i>Biztanleriaren proiezioa:</i> 2022-2036 aldian % 5,28ko hazkundera aurreikusten da, migrazio saldoa igoko delako eta jaiotze tasa ere handituko delako. Azken horrek % 31eko hazkundera izango duela espero da (4.900 jaiotze 2022an eta 6.400 2036an).▪ <i>Migrazio saldoaren bilakaera:</i> migrazio saldoa % 25 handitu zen 2019tik 2022ra. Emigrazioa parekatuta egon zen gizonen eta emakumeen artean; immigrazioari buruzko datuetan, berriz, emakumeen presentzia gizonena baino nabarmen handiagoa izan zen (% 18 hazi zen 2019-2022 aldian).
EKONOMIA	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>Barne Produktu Gordina (BPG):</i> 2023ko lehen hiru hiruhilekoetan, Gipuzkoako ekonomiak % 1,9ko hazkundera metatu zuen 2022ko aldi beraren aldean, eta maximo berri bat ere lortu zuen aldi horretarako, 2019ko lehen hiru hiruhilekoen gainetik % 1,5 hazi baitzen.▪ <i>Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI):</i> KPIa egonkortze zantzuak ematen hasi da, eta 2023. urtea % 3,3ko urte arteko aldakuntza tasarekin itxi du. Zifra hori txikiagoa da aurreko aldiekin alderatuta (2022 = % 5,4 eta 2021 = % 6,3), elikagaien prezioak egonkortu direlako eta elektrizitatearen prezioak iaz baino gutxiago igo direlako.



GIPUZKOAK EGUN DUEN EGOERAREN ALDE AIPAGARRIAK

	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>Industria Produkzioaren Indizea (IPI)</i>: nahiz eta pandemiak 2020an industrian izan zuen eragina, IPI indizea % 5,50 handitu zen 2019-2022 aldian.▪ <i>Establezimenduak jardueraren arabera</i>: establezimendu kopurua % 4,48 jaitsi zen 2019-2022 aldian, Debarrenan suntsitu zirelarik establezimendu gehien (% -5,25) eta Donostialdean gutxien (% -3,10). Jardueraren arabera, nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan izan zen beherakada handiena (% -25), eta, jarraian, merkataritza, garraioa eta ostalaritza (% -6).▪ <i>Kanpo merkataritza</i>: merkataritza saldoak, positiboak eta 2022an pandemiaren aurreko zifren gainetik, lurraldearen lehiakortasuna islatzen du.▪ <i>Gizarte ekonomiako fundazioak</i>: gizarte ekonomiako fundazioen kopurua egonkor mantendu zen 2018-2021 aldian, eta, gehienak, irakaskuntzako eta ikerketako fundazioetan kontzentratu ziren. 2020an, gizarte ekonomiaren enplegua industriaren eta zerbitzuen sektorean kontzentratu zen.
GIZARTEA	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>Biztanleriaren jarduera</i>: 2019-2022 aldian, 3.400 landun gehiago, 1.400 langabe gutxiago (langabezia tasa % 6,9an zegoen 2022an) eta biztanleria ez-aktiboan 2.100 pertsona gehiago izan ziren. Generoen arteko aldeei dagokienez, nabarmentzekoa da emakumeek gutxiago hartzen dutela parte biztanleria aktiboan, landun guztien % 47,1 izanik. Azkenik, 2018-2021 aldian, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren aldaketa, oro har, uniformea izan zen eskualdeen artean, Debarrenaren kasuan izan ezik, bertan galdu baitzen landunen kopuru handiena.▪ <i>Ongizate pertsonalaren adierazleak</i>: Azken urteetako ongizatearen adierazleak biztanleriaren egonkortasun pertsonala erakusten dute, eta aldagai ahulenak botere publikoekiko konfiantzari eta pertsonen arteko konfiantzari buruzko adierazleak dira.▪ <i>Euskara maila orokorra</i>: 2021ean Gipuzkoako biztanleriaren % 58 euskalduna zen, 2011etik 2021era bitartean % 3,5 hazi zelarik.▪ <i>Genero arrakala</i>: Gipuzkoaren adierazlea 0,86koa izan 2019an eta 0,85ekoa 2017an.▪ <i>Biztanleko gastua gizarte zerbitzuetan</i>: gastua % 39 igo zen 2010-2020 aldian, baita gastuaren proportzioa ere BPGrekiko.▪ <i>Zentroak, plazak eta erabiltzaileak</i>: 2020an, gizarte zerbitzuen erabiltzaile mota nagusia adineko pertsonena izan zen (% 67), eta datozen urteetan kopuru hori handitzea espero da.
LURRALDEA ETA INGURUMENA	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>Airearen kalitatea</i>: Gipuzkoako eskualde guztietan airearen kalitatea "oso ona" da, Donostialdean izan ezik, non "ona" den.▪ <i>Kontsumorako uraren kalitatea</i> hobetuz joan da; hala, 2021 ean, biztanleriaren % 99,6k kontsumitzen zuen kalitate oneko ura.▪ Lurraldean 2020an <i>gehien erabili zen garraiobidea</i> garraio pribatua izan zen pandemiaren ondorioz; oinez edo bizikletaz joaten ziren biztanleen kopurua ere handitu egin da.▪ <i>Biztanleriaren ehuneko ingurumen neurrien alde</i>: trafiko-zarata murriztea izan zen gipuzkoarrek gehien babesten zuten neurrietako bat. Bestalde, turismoari zerga bat

GIPUZKOAK EGUN DUEN EGOERAREN ALDE AIPAGARRIAK

	<p>ezartzea eta etxeko hondakinak bereiztearen inguruko kezka gora egin zuten 2020an.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ <i>Etxebizitzaren arabera hondakinen bilketa maila:</i> 2020an, kartoia, plastikoa eta beira izan ziren herritarrek gehien bildu zituzten hondakinak. Hala ere, beste hondakin organiko batzuen bilketari buruzko kontzientziazioa areagotu egin zen. 2020an, 10 etxebizitzetatik 9,48 kontzientziazituta zeuden etxeko ohiko hondakinen tratamenduari buruz, 2008an baino 2,14 puntu gehiago.
TEKNOLOGIA ETA I+G+b	<ul style="list-style-type: none">▪ <i>I+G+b berrakopioaren gastua:</i> I+Gko gastua % 9,45 handitu zen 2019-2021 aldian, eta 2020an BPGarekiko % 2,64 izan zen (erreferentziazko herrialde batzuen azpitik, hala nola Alemaniaren azpitik (% 3,13)).▪ <i>I+Gren gastua gauzatzen diren sektoreak:</i> I+Gko gastuaren % 83,31 enpresetan eta IAGEPetan (Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatua) gauzatu zen 2021ean.▪ <i>I+G finantzatzeko funtsen jatorria:</i> 2021ean enpresen (% 60) eta Administrazio Publikoaren (% 30) artean banatu zen. Gainontzekoa atzeritik (% 8) eta goi-mailako irakaskuntzatik (% 2) etorri zen.▪ <i>I+Gko gastua diziplina zientifikoaren arabera:</i> 2021ean ingeniarietako eta teknologiatikozko diziplinak kontzentratu zuten ehuneko handiena, I+Gko gastuaren % 78 hain zuzen.

Iturria: Egileak moldatuta, EUSTATEN datuetan oinarrituta

2.2 GIPUZKOARENTZAT LEHENTASUNA DUTEN GARAPEN EREMUETAKO ARRISKUAK ETA DESAFIOAK

Azken urtean, COVID pandemiak nazioarteko agertokia menderatzeari utzi zion, baina, horren ostean, garai nahasietan murgildua dagoen Europa bestelako aurrerapausoak ematen eta finkatzen dabil, besteak beste ondorengoetan: trantsizio berdean, deskarbonizazioan edo industria- eta defentsa-ereduari buruzko hausnarketan. Etorbizuna definituko duten horietan arreta jarritz, ondorengo taulan Gipuzkoaren jarduteko agertokian azaltzen diren arrisku nagusiak jasotzen dira:

2. taula. GFAk etorkizunean aurre egin beharko dien arrisku nagusiak

GIZARTEA	EKONOMIA	LURRALDEA	POLITIKA	TEKNOLOGIA
Bizi kostuaren igoera – Pobretzea	Ziklo ekonomikoaren aldaketa – Atzeraldi sakona	Hondamendi naturalak	Estatuen arteko gatazkak areagotzea	Zibererasoak eta zibersegurtasunari lotutako arazoak
Gizarte kohesioaren higadura, desberdintasunak eta polarizazioa	Zorraren krisia – Interes tasak	Klima aldaketari aurre egin	Erakunde multilateralen eraginkortasunik eza – nazioarteko lankidetzatza	Eten digitala eta zerbitzu digitalerako sarbide eza
Eskala handiko migrazioak	Inflazioaren aldakuntza	Biodibertsitate galera eta ekosistemen kolapsoa	Nazioarteko terrorismoa	Adimen artifizialari lotutako arriskuak
Desinformazioa	Balio-kate globalen haustura funtsezko sektoreetan	Aldaketa fenologikoak eta lurzorua degradazioaren azelerazioa	Demokraziaren krisia: herritarren politikarekiko deskonexioa	Datuen pribatutasuna eta segurtasuna
Enplegu krisia eta lanaren etorkizuna	Industriaren pisua gutxitzea	Lurralde desorekak sakontzea, udalerrien eta eskualdeen artean	Gizartearen nortasun demokratikoaren eta zibikoaren narriadura	Material kritiko falta ekonomia deskarbonizatu eta digitalizatu baterako
Gaixotasun kronikoak eta osasun mentala	Nazioarteko merkataritza gerrak	Mugikortasun eskema berrietara ez aldatzea	Krisi fiskala eta aurrekontu-mugak	Arrisku kimiko, biologiko, erradiologiko eta nuklearrak (QBRN)
Zahartzea eta belaunaldi erreleboa	Energiaren prezioak	Lurraldeko energia zaugarritasuna	Autogobernuaren garapenean aurrera ez egitea	Azpiegitura teknologikoen hutsak

Iturria: Egileak egina

Mundua zalantzasz beteriko testuinguru eta aldaketa sakonak ematen ari diren momentu batean murgilduta dago. Horrek guztiak, paradigma berri bat definitzen du, eta Gipuzkoari eragiten dion neurri eta eran, ondorengo krisi eta eraldaketak ekarri dizkio: erronka demografikoa eta pertsona zaurgarriei arreta eta laguntza handiagoa emateko beharra (pandemiaren ondorioz errealitate sozial berrien areagotzeak baldintzatzen duena); migratzaileen gizarte inklusioa eta partekatutako balioei eta gizarte kohesioari eusteko erronkak eta aukerak; inflazio itxaropenak ez ezik ekonomiaren ziurgabetasunaren ondorioz sortutako industriaren moteltzeak, lan merkatuaren eraldaketak eta familia ekonomien nariadurak; klima aldaketa eta krisi energetikoa edo teknologia berriak sartzearen inpaktua dira Plan berriak aurre egin beharko dien erronketako batzuk.

Hori guztia lantzeko, ondoko hauek hartu beharko dira oinarri: politika publiko berritzaileak, gizatiarragoa eta ingurunearekiko errespetuzkoagoa den eredu berri bat, garapen jasangarria, berrikuntza eta berdintasuna. Horrela, mundu mailan ematen ari diren joeretatik, ondorengo erronkak ondorioztatzen dira:

3. taula. Etorbizunerako erronkak GFarentzat, munduko joeren arabera

Gipuzkoaren erronkak, megatendentzia mundualen arabera	Gizartea	<ol style="list-style-type: none"> 1) Lurraldearen eraldaketa demografiko eta sozialei aurre egitea, non biztanleriaren zahartzeak eta nazioarteko migrazioak ongizate sistemari eusteko formulak eskatzen dituzten, balio partekatuak eta gizarte kohesioa indartzeko, zaintza beharrak bermatzeko eta gizarte babesaren arloan erreferente izaten jarraitzeko. Era berean, belaunaldien erreleboa kudeatu behar da gazteei aukerak eskainiz. 2) Berdintasun ekonomikoaren eta aberastasunaren bidezko banaketaren aldeko borrokak mugimendu sozial eta politikoak bultzatzen dituela kontuan hartzea; beraz, beharrezkoak dira ongizatea eta lehiakortasuna babestera bideratutako zerga politikak. 3) Aniztasunaren eta inklusioaren eremuan, genero berdintasuna, arraza inklusioa eta sexu orientazioan aniztasuna onartzea sustatzea, eta euskal kultura eta euskararen erabilera indartzea. 4) Ongizateari eta osasun mentalari dagokienez, herritarren bizi ohitura osasungarrien alde egitea, eta nahasmendu mentalekin lotutako estigma murrizteko eta arreta psikologikorako sarbidea hobetzeko ahaleginak egitea.
	Ekonomia	<ol style="list-style-type: none"> 1) Ekosistema naturalekin dugun harremana hobetuko duten eredu sozioekonomiko eta produktibo berriak definitzea. 2) Gizarte aberastasuna sortuko duen ekonomia indartsu eta lehiakorra finkatzera bideratutako ekintza berriak bultzatzea, kalitatezko enplegua sortzen duen enpresa sare arin batekin, langileen parte-hartzean, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarrituta. 3) Hornidura kateen disrupzioak, inflazioak eta gero eta multipolarragoa den munduan ematen diren gatazka geopolitikoek enpresa eredu arin eta kolaboratibo bat eskatzen dute, balio kate globalerako aldatetara eta funtsezko sektoreen eraldaketa bizkorrera azkar egokituko dena.
	Lurraldea	<ol style="list-style-type: none"> 1) Gipuzkoako gizartearen eta ekonomiaren trantsizio energetikoa ziurtatzea, 2050ean klima neutraitasuna lortzeko bidean eta Europako Itun Berdearekin bat etorritik, energia berriztagarrien sustapenean, ekonomiaren zirkulartasunean eta mugikortasun jasangarriago eta lotuagoan aurrerapauso nabarietan oinarrituta. 2) Lurralde desorekak arintzea, udalerri txikietan eta lurraldeko landa ingurunean dinamismoa eta zerbitzuak bultzatuz eta ingurune naturalak eta biodibertsitatea zainduz.

Gipuzkoaren erronkak, megatendentzia mundialen arabera	Politika	<ol style="list-style-type: none">1) Globalizazioaren zalantza beteriko etorkizuna kontuan hartzea, politika protekzionisten gorakadekin eta nazioarteko aliantzen berreraikitzearekin. Eragile globalen arteko mesfidantza gero eta handiagoari aurre egitea, lankidetzaren erabakigarria den une honetan.2) Lankidetzaren gobernantzaren ereduaren aurrera egitea, herritarren eta politikaren arteko deskonexioak markatutako nazioarteko testuinguruan, administrazio arinago batera eboluzionatuz eta gizartearengana hurbilduz. Herritarrek politika publikoen diseinuan duten parte-hartzea areagotzea.
	Teknologia	<ol style="list-style-type: none">1) Inklusio digitala bermatzea, pertsona guztiak ekonomia eta gizarte digitalean parte hartzeko eta horietatik onura ateratzeko aukera izan dezaten.2) Teknologien aurreratze azkarrak, gailu mugikorren mendekotasun gero eta handiagoarekin, Internetarako sarbideak eta sare sozialek pertsonak komunikatzeko, lan egiteko eta harremanak izateko modua aldatzen ari dira. Erronka hori handia da adinekoengan zein gazteengan.3) Ezagutzaren ekonomia garapenaren eragile gisa, Gipuzkoako zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sarea sendotuz eta erakundeak, enpresak eta proiektu teknologikoak nazioarteko abangoardiara erakarrit.

Iturria: Egileak egina

2.3 GIPUZKOAREN ERRONKAK

Bizi dugun ziurgabetasun eta eraldaketa testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun nahi die gipuzkoarrekin lankidetzan, eta horrela, datozen urteetan lurralde gisa aurrera egiteko ongizatearen oinarriak definitu eta eraiki. Ildo horretan, Plan Estrategiko hau ezinbesteko tresna izango da datozen lau urteetan lurralde osoaren noranzkoa gidatzeko.

Jarrian, Gipuzkoako diagnostiko-analisitik ondorioztatu diren 5 lurralde erronkak jasotzen dira, dokumentu honetan aurrerago aurkezten diren helburu estrategikoen bidez erantzuna emango zaien erronkak izanik.

1. irudia. Gipuzkoaren erronkak

1. erronka



Gizarte babeseko mailak igotzea, pertsonak erdigunean jarri, pertsona guztiei kalitatezko zaintza eta arreta bermatuz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz. Horrela, etorkizuneko beharrianak handitu egingo direla aurreikusten da.

2. erronka



Kalitatezko enplegua sortuko duen ekonomia indartsu, ireki, lehiakor, berritzaile eta erresiliente bat finkatzea, etorkizuneko industria sektoreak garatzeko enpresa sarearen beharrezko eraldaketak bultzatuko dituen eta Gipuzkoako familien ekonomia babestu eta sendotuko duena.

3. erronka



Digitalizazio eta eraldaketa teknologikoko prozesu globalei egokitzea eta aurre hartzea, eraginkortasunaren, lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik sortuko diren aukera berriak aprobetxatuz, eta prestakuntzan eta talentua atxikitzean eta erakartzean, nahiz enpresa kulturaren edo gizarte harremanetan sortuko diren erronkei erantzuna emanez, pertsonak alde batera utzi gabe.

4. erronka



Klima aldaketari aurre egitea, elikadura jasangarria, gizartearen trantsizio energetikoa eta ekonomia bultzatuz, Gipuzkoa lurralde orekatua, jasangarria eta berdea izan dadin.

5. erronka




Ongizate sistemari, partekatutako balioei eta gizarte kohesioari eustea eta indartzea ahalbidetuko duten formulak bilatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatuz, eta kontuan hartuta eraldaketa demografikoko prozesu batean murgilduta gaudela, non gizartearen zahartzea, belaunaldi erreleboa, immigrazioa eta gero eta aniztasun handiagoa bere adierazle nagusiak diren.

2.4 ERAKUNDEAREN ERRONKAK ETA BALIOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak Plan Estrategiko hau gauzatzeko eta hedatzeko duen rola dela-eta, lurraldearen erronken azterketa eta identifikazio honekin batera, erakundearen inguruko hausnarketa bat egin da. Horrela, eta azterketa horren emaitza gisa, Foru Aldundiak berak plan berri honen esparruan lehenesten dituen erronkak definitzen dira:

2. irudia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronkak




Iturria: Egileak egina

Bestalde, lehenesten dituen barne erronka hauez gain, Foru Aldundiak ondorengo hauek ere identifikatu ditu erronka garrantzitsu gisa: (i) partaidetza- eta interakzio-dinamikak areagotzea, (ii) Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak eraldaketa digitalerako gaitzea eta horretarako tresnak ezartzea, (iii) Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak trebetasun berrietan gaitzea, (iv) jardueren gardentasuna eta kontu-ematea areagotzea, (v) departamentuen arteko informazioaren gardentasunean eta eskuragarritasunean sakontzea, (vi) Gipuzkoako Foru Aldundiko belaunaldi aldaketaren testuinguruan ezagutzak transmititzen direla bermatzea, (vii) komunikazio eraginkorra eta irekia bultzatzea eta (viii) etengabeko ebaluazio eta berrelikadura prozesuak sustatzea.

Lurraldeak eta, haren eskutik, Foru Aldundiak datozen urteetan aurre egin beharko dituen erronkak ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat lehenetsi diren balioak zerrendatzen dira hemen. Horrela, abiapuntutzat aipatu behar da, barne kulturaren eraldaketak Lankidetzazko Gobernantzaren Ereduarekin lerrokatutako kultura bat eskatzen duela. Beraz, eredu horren baitan eta datozen erronkei aurre egiteko behar diren balio horien arabera ondorengoak finkatu dira:

3. irudia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren balioak



Iturria: Egileak egina

Lehenesten diren balio horietaz aparte, ondoren zerrendatzen diren erakundearen balioak nabarmentzen dira Foru Aldunditik: (i) bizkortasuna, (ii) aurre-hartzailea, (iii) profesionaltasuna, (iv) irekitasuna, (v) berdintasuna, (vi) segurtasuna eta (vii) justizia soziala.


3) 2024-2027RAKO ESTRATEGIA

Prozesu honetan identifikatutako lurraldearen eta erakundearen erronkei eta balioei heltzeko eta erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa definitu da. Ildo horretan, jarraibide estrategiko bat zehaztu da, helburu estrategiko batzuk jasotzen dituena, eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat datoz identifikatutako erronkei erantzuten dieten heinean. Alegia, Nazio Batuen ekintza planarekin, pertsona guztientzako etorkizun hobea eta jasangarria lortzen laguntzea xede duena.

3.1 ETORKIZUNERAKO GIPUZKOAREN BALIOAK ETA IKUSPEGIA

Etorkizuneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua lurraldearen eta biztanleriaren gidari izango diren balioetan oinarritzen da. Jarraian azaltzen diren zazpi balioak ezagunak dira gipuzkoarrentzat, lurraldearen nortasunaren parte direlako eta horretan luze ehundu dutelako gipuzkoar komunitatea. Hala ere, egungo testuinguru eta paradigmaren barruan, funtsezko erronka da konpromisoa berrestea eta hauetan sakontzen jarraitzea:

4. irudia. Gipuzkoaren balioak



Iturria: Egileak egina



Konfiantza: Konfiantza osoa dugu Gipuzkoak hamarkadetan zehar landu dituen oinarri sendoetan, baita gipuzkoarengan ere. Pertsonen, erakundeen, eragileen eta herritarren arteko konfiantzan lanean jarraitzea ezinbestekoa da lurraldeak aurrera egin dezan.



Justizia soziala: Gizarte kohesionatu bat izaten jarraitzeko ezinbesteko baldintza da justizia soziala eta berari lotutako balioen alde egitea. Kalitatezko lanpostu bat edukitzeko eskubidea, errentaren banaketa progresiboa eta justua, aukera berdintasuna, ongizatea, bazterkeria eta pobrezia-aren aurkako ahalegina eta herritar zaugarrienen babesa gobernu jardunaren oinarri-oinarrian egongo diren balioak dira.



Komunitatea: Izaera komunitario indartsua duen lurraldea da gurea. Zailtasunei aurre egin eta egungo eraldatzei aurre egiteko garaian, izugarriko balioa du horrek. Indibidualismoaren eta kontsumismoaren aurrean, babestu eta indartu beharreko balioa.



Elkarlana: Gipuzkoa elkarlanaren lurraldea da eta horixe da gure lurraldearen indargune nagusia. Iraganeko eztabaida amaigabeak gaindituz, azken urteotan jakin dugu elkarlana erdigunean jartzen. Horixe delako egungo testuinguruan aurrera egiteko modu bakarra: arazoei eta desfioei ilusioz eta talde lanean erantzunez.



Berdintasuna: Gizarte desberdintasunak onartzen ez dituen gizartea da gurea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean urrats ausartak eman nahi dituen, lurralde oreka defendatzen duena, hizkuntzen arteko egoera berdintzearen alde ahalegina egiteko prest dagoena, eta inor atzean utzi nahi ez duena.



Ondo egindako lana: Belaunaldiz belaunaldi, lan onarekiko atxikimendua eta konpromisoa transmititu izan da gipuzkoar gizartean. Transmisio horren babesean, gure gizartean bizi-bizirik dirauten beste hainbat balio garatu dira: hala nola, talde lanaren garrantzia, ekintzailtza, berrikuntza, kalitatezko enpleguaren aldeko jarrera, interes komunaren aldeko konpromisoa, partaidetza eta elkartasuna. Balio horiei eutsi eta horietan sakonduko dugu gobernu jardunean.



Zintzotasuna: Baliabide publikoen erabilera egokia eta datozen belaunaldiak begirunez hartuko dituen, gure ondorengoek ez dezaten lepoan eraman gure zorraren zama, egiteko konpromisoa berresten dugu, eta politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko moduak garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Gobernu jardunean egin litezkeen akatsak eta norbere mugak zintzotasunez onartu, arazoei konponbide eraginkorrak bilatu eta gainontzeko erakundeekin, eragileekin eta herritarrekin elkarlan dinamikak sortzeko konpromisoa hartzen dugu, konbentzita baikaude egungo eraldatzei lankidetzatik soilik erantzun diezaikegula.

Balio horietatik eratortzen da 2024-2027 aldirako Gipuzkoako ikuspegia. Horrek adierazten du nolakoa nahi dugun izatea datozen urteetarako amesten dugun Gipuzkoa.

Bizi dugun une eta testuinguru historikoa kontuan hartuta, eta azken urteotan egindako lanaren ildotik, ikuspegi horrek garapenaren dimentsio materialetan ez ezik, dimentsio ez-materialetan ere jartzen du arreta berezia. Horrela, lurraldearen aurrerapena pertsonen erabateko ongizatearekin eta gauzen zentzuarekin lotzen du:




***“Gipuzkoa komunitate arduratsu,
berdinzale, orekatu eta bidezkoa izatea,
persona guztien ongizate osoa zaintzen
duen ekonomia lehiakor, berritzaile eta
jasangarria duena, eta osotasuna eta
zentzua duten etorkizuneko proiektuak
garatzeko aukerak sortzen dituen”***

Bisioan bi subjektu dauzkagu erdigunean: pertsona eta komunitatea. Pertsonari lotzen zaio ongizate osoaren ideia desiragarria (ongizate materiala, fisikoa, emozionala, mentala, zaintza, babesa, asebetetzea, zoriona...) eta hori lortzeko komunitatean balio batzuk nabarmendu behar direla azpimarratzen da: ardura, oreka, solidaritatea eta justizia. Horrela, ulertzen da komunitateak ardura duela lurraldearen garapenean, komunitate horretan oreka behar dela dimentsio ezberdinetan, ezinbestekoa dela solidaritatea pertsonen eta pertsona taldeen artean, eta betiere, justuki bilatu behar dela komunitatearen ardura, solidaritate eta oreka horren garapena. Ekonomiari ere aitortza zentrala egiten zaio ikuspegian, ulertzen delako, lortu nahi den pertsonen ongizatea, komunitate mota eta garapen bidea aberastasuna sortzeko gai den ekonomiarekin bakarrik egin daitekeela. Zehazki, hiru “abizen” ezarri zaizkio ekonomiaren kontzeptuari: lehiakorra (Gipuzkoako ereduan dagoen eta lehiakortasun ekonomikoa eta soziala uztartzen dituen ikuspegia), berritzailea (berrikuntzaren bidez ekonomia aurreratu eta enplegu onak edukitzeko gaitasuna bultzatzeko) eta jasangarria (garapen eredu jasangarrian aurrera egiten jarraitzeko enpresen, ingurunearen eta pertsonen biziraupena ziurtatuz).

Horiekin batera, lortu nahi den Gipuzkoa horretarako 3 ardatz eta kontzeptu zehaztu dira bisioaren muinean:

5. irudia. Gipuzkoako ikuspegiaren ardatzak



Iturria: Egileak egina

- 1) Aukerak:** Lurraldeak gai izan behar du aukerak sortzeko etorkizunean edozein bizitza proiektu, enpresa proiektu edo bestelako ekimen garatu ahal izateko. Aukera emaitza izan behar du gazteentzat, etorkinentzat, adinekoentzat, enpresentzat, hezkuntzarako, zientziarako, kulturarako, berrikuntzarako... Azken batean, daukagun eta datorkigun munduan ondo bizitzeko aukera materialak eta ez materialak eskainiko dituen lurraldea izango da Gipuzkoa.
- 2) Oreka:** Oreka bizitzako eta errealitateko esparru ia guztietan desiragarri ikusten da, eta ezinbestekoa da pertsonen ongizate integrala izan dezaten eta garapen eredu jasangarria gauzatu dadin. Oreka behar da osasun fisiko eta mentalaren artean, naturarekin harremanean, gizarte erlazio eta interakzioetan, lan egitearen eta aisialdiaren artean, lurraldean zehar, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, hizkuntzen erabileran, aberastasunaren banaketan, eskubide eta betebeharren artean, belaunaldien artean, nortasun kolektibo ezberdinen artean...
- 3) Zentzua:** Gauzen zentzua erdigunean jartzea eta gauzak zentzuz egitea ezinbestekoa da bizi dugun munduan. Gure dimentsio pertsonalean bizitzaren edo lanaren zentzutik hasi eta dimentsio kolektiboetara, komunitatearen, enpresen edo herrien zentzuaren bilaketa erdiguneko eraldaketa motorrak dira gaur. Proiektuak, pertsonalak zein kolektiboak, zentzuz garatzeko eta zentzua izan dezaten lurraldea desiratzen da. Ez dugu nahi gauzak nolana, inertziak edo egiteagatik egingo dituen pertsona, talde, enpresa eta erakunderik, baizik eta gai direnak zentzua topatu eta zentzuz aurrera egiteko.

3.2 JARRAIBIDE ESTRATEGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren baitan jarraibide estrategiko bat garatu da, 4 zutabe, zeharkako 2 gaitzaile eta zeharkako 3 politika dituena. Horrela, jarraian, jarraibidearen osagai bakoitza azaldu eta zehazten da:


6. irudia. Jarraibide estrategikoa

JARRAIBIDE ESTRATEGIKOAREN ZUTABEAK ETA ZEHARKAKO GAITZAILEAK ETA POLITIKAK		
ZEHARKAKO GAITZAILEAK		
	Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurrehartzailerak, ekintzailerak eta eraginkorra	Lurraldearen erronkei aurre egiteko zerga eta finantza politika
I. zutabea	Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna	
II. zutabea	Komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia	
III. zutabea	Ongizatera bideratutako ekonomia, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena, lehiakorra eta berritzailea, aukeren sortzailea	
IV. zutabea	Lurralde jasangarria, berdea, erresilientea, orekatua, kohesionatua eta interkonektatua	
ZEHARKAKO POLITIKAK		
	Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea	Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz
		Garapen jasangarri (GJH) eta bidezkoa sustatzeko balioak, ohiturak eta gaitasunak bultzatzeko ekimenak garatzea

Iturria: Egileak egin

3.2.1 Zutabe estrategikoak

Plan honen jarraibide estrategikoak 4 zutabe zehazten ditu, eta horietako bakoitzak fokua elementu batean jartzen du: pertsona, komunitatea, ekonomia eta lurraldea. Horrela, zutabe bakoitzean jasotako helburu estrategikoak foku horretan ardatzen dira.

 I. zutabea	Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna
---	--

Norbere ongizateaz eta ekitatean eta unibertsaltasunean oinarritutako kalitatezko zerbitzu publiko sare berritzaileaz berdintasunean gozaten duten pertsonak.

Gipuzkoa pertsona guztiek beren bizitza proiektuak berdintasunean gara ditzaketen lurraldea da, beren eskubide guztien subjektu izanik, gure herritartasun izaera gauzatzen duen itun sozialaren zati gisa. Pertsonen ongizatea babesten duen komunitatea da, non guztiok dugun eskubidea ahalik eta babes handiena bermatzen duten kalitatezko zerbitzuak, sareak eta tresnak izateko.

Pertsonen ongizatea da politika publikoen azken helburua. Ongizate hori osasun egoera eta erabateko garapen gisa definitzen da, egoera hori lortzeko prozesu gisa. Osasun fisikoa eta mentala, emozionala, soziala eta kognitiboa barne hartzen ditu, baita alderdi materialak, sozialak, espiritualak eta kulturalak ere.

Eskubide guztiez gozatzea, eta bereziki ongizate eskubideaz gozatzea, ez da gizonengan eta emakumeengan duen eraginari buruzko irakurketa bereizirik kanpo geratzen. Ongizatea da, izan ere, desberdintasunek gehien baldintzatzen duten eskubideetako bat, eta desberdintasun horien artean genero desberdintasunak hartu behar dira bereziki kontuan, genero rolek gizarte osoari eragiten dietelako.

Genero sozializazioak besteen ongizatearen gaineko erantzukizun orokorra sortzen du emakumeengan, batez ere, familiaren ongizateari dagokionez, zentzu zabalean. Horrela, eta genero gizarte aginduen bidez, emakumeak zaintzaile, babesle eta besteen ongizatearen arduradun gisa duten rola menpe geratzen dira. Eredu horren ondorioak ondo dokumentatuta daude emakumeen osasun fisiko, mental eta emozionalean eragin bereizgarriak daudela erakusten dituen literatura zientifiko zabalean.

Gipuzkoa lurralde oparoa da eta hala izaten jarraitu behar du, horretarako belaunaldi guztiei bizitza osorako aukerak eskainiz, eta datozen belaunaldietan arreta berezia jarriz. Gazteek hezkuntza, lan, gizarte, kultura eta etxebizitza aukerak edukitzea funtsezkoa da, lurraldean pertsona gisa garatu eta hazi ahal izateko.



II. zutabea

Komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia

Gipuzkoa, balioak, erantzukizunak eta konpromisoak egungo eta etorkizuneko belaunaldiekin partekatzen dituen pertsonen komunitatea.

Pertsonentzat komunitatea funtsezko ongizate sistemetako bat da. Desberdintasunak arintzen dituen, indarguneak sustatzen dituen eta helburu soziala ematen digun komunitatea dugun heinean "gara". Komunitatea, gure bizitza garatzen dugun balioen, konpromisoen eta erantzukizun partekatuen egitura gisa ulertuta, funtsezko zutabea da zentzua duten bizi proiektuak garatzeko.

Komunitatearen gizarte kultura oinarritzen da partekatzen ditugun eta zentzua ematen diguten balioetan, ohituretan eta gaitasunetan. Gure pertsonen komunitatea bat dator oinarri horiekin, eta horien gainean Gipuzkoa demokratiko, bidezko eta arduratsu bat eraikitzen jarraitu nahi dugu, elkarrekin aurre egiten diegun erronken aurrean: garapen jasangarria, giza eskalakoa eta arduratsua egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat.

Guztion parte-hartzea aktiboki bilatzen dugu, eta horregatik, badakigu komunitatean parte hartzean desberdintasunak daudela, eta desberdintasun horien artean genero desberdintasunak bereziki kontuan hartu behar dira. Izan ere, eta genero sozializazioa dela eta, emakumeek gizartean duten parte-hartzea askoz mugatuagoa da oraindik gizonezkoena baino, azken hauek eremu publikorako sozializatu baitira. Politika publikoaren agindua da muga horiek gainditzeko eta emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua lortzeko baldintzak ziurtatzea: komunitatean finkatzen baitira partekatzen ditugun balioak, kultura soziala eta politikoa –konpromisoarena, erantzukizun pertsonal eta kolektiboarena, laguntza komunitarioarena– eta pertsonen bizitza garatzen den kultura immaterialaren berezko ezaugarriak.

Emakumeek komunitatea eusteko izan dezaketen eragina aukera bat da ingurune sozial eta kultural inklusiboagoak garatzeko eta pertsona guztien arteko berdintasuna sustatzeko. Emakumeen aintzatespena eta parte-hartzea gizarte berrikuntzako iturria da, eta begirada eta babes bereizgarriak behar ditu.

Euskararen erabileran goranzko jauzi bat ematea nahi dugu eredu berritzaile baten bidez, egungo gizarteak planteatzean dituen erronkei aurre egiteko. Horretarako, Foru Aldundiak eman behar diren baldintzak ahalbidetzea izango du helburu gizarteko sektore ezberdinak inplikatu. Gipuzkoa ezaugarri propioak dituen Komunitatea izanik, euskaltzaleon oinarri soziala gehiago zabaldu, aktibatu, ahaldundu eta sareak Foru Aldundiaren lidergoa eskatzen du.



III. zutabea

Ongizatera bideratutako ekonomia, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena, lehiakorra eta berritzailea, aukeren sortzailea

Gipuzkoa, aberastasuna eta balioa sortzen dituen eta talentua indartzen duen lurraldea, berritzen duen eta gaurko eta biharko aukerak sortzen dituen ehun ekonomikoa duena.

Ziurgabetasun eta gainjarritako krisi testuinguru batean, gurea bezalako gizarte aurreratueta eredu ekonomikoak baldintzatuko dituzten trantsizioek dagoeneko eragin diferentziala dute garapen sozialeko ardatzen berrikuspen sakonean. Lurraldearen apustu estrategikoek kontuan hartu behar dituzte, besteak beste, Gipuzkoako egitura demografikoa, gure enpresa ehunaren osaera, lurraldeko enpresek parte hartzen duten balio kate globaletan duten egoera, edo pertsona guztiei, eta, bereziki, talentu belaunaldi berriei, etorkizuna ekarriko dieten proiektu profesionalak sortzeko beharra.

Gipuzkoaren lehiakortasun ereduak jasangarritasun hirukoitzaren printzipioei erantzuten die (ekonomia, gizartea eta ingurumena) eta aurreikusten diren neurri guztien hedapenean eragiten du.

Trantsizio horiek agerian jartzen dituzten aukerek garapen maila oso altua lor dezakete Gipuzkoa bezalako lurraldean, "enpresa" parte-hartzailearen eredu propioa, kooperatiba kultura oso garatua, lehen mailako baliabide eta gaitasun teknologiko eta zientifikoak eta ekintzailtza eta enpresa garapena babesteko baldintza oso aurreratuak dituen.

Gure enpresa ehunaren indarguneetatik abiatuta, berritzeko eta eraldatzeko duen gaitasunean oinarrituta, gure proposamen estrategikoa bideratzen dugu jarduera nitxo berriak sortzera.

Bestalde, pertsonak eta haien talentua erakartzea lehia-premia bat da lurralde guztientzat, eta talentua erakartzen eta atxikitzen duten proiektuak sortzeko lasterketan, kontuan hartu behar dira gizonen eta emakumeen itzaropen bereizgarriak, bai eta itun sozial berriaren baldintzak sortzea ere, enplegu masiboan eta baliabideen erabileran oinarritutako ekonomia batetik ordainsari baldintza berrietan balioa sortzera, denboraren erabilerara eta proiektu profesionaletan harreman eta partaidetza ereduera bideratutako beste batera igarotzeko.



IV. zutabea

Lurralde jasangarria, berdea, erresilientea, orekatua, kohesionatua eta interkonektatua

Gipuzkoa, pertsonen bizitzarako lurralde jasangarri eta orekatua, ingurumena babesteko eta klima aldaketara egokitzeko arduratsua.

Edozer gauza konpon daitekeen usteak ez du funtzionatzen ingurumenari aplikatzen diogunean. Badakigu trantsizio jasangarria lehentasun gisa kokatzen duen itzulerarik gabeko puntura iritsi garela. Sortutako inpaktu negatiboak kudeatu beharko ditugu, baita egungo eta etorkizuneko ondorioak arindu, eta bizi baldintzak klima aldaketara egokitzeko gai izan ere.

Dena birpentsatu beharko dugu: lurraldearen erabilera eta horrek ematen dizkigun balio natural eta zerbitzuen babesa, etorkizuneko Gipuzkoaren ongizate itxaropenei eutsiko dien eredu energetikoa, hurbileko ekoizpen eta kontsumoaren sustapena, ekonomia zirkularra, mugikortasuna, etab.

Nekazaritzan, abeltzaintzan, artzaintzan eta basogintzan aritzen direnek funtsezko zeregina dute Gipuzkoan elikagai osasuntsu eta jasangarriak ekoizteko, paisaia eta ingurumena zaintzeko, eta, bereziki, klima aldaketari ematen zaion erantzunean protagonista nabarmen bihurtzeko.

Trantsizio horren eraginpean dauden sistemen berrikuspenean genero berdintasuna txertatzeak ulermen sakonagoa dakar, eta, beraz, irtenbide jasangarriak emateko gaitasun handiagoa, terminoaren zentzu zabalean. Egokitzapenak ulermena eskatzen du: emakumeek eta gizonek espazioaren eta baliabideen erabilera desberdina egiten dugu, edo modu desberdinean mugitzen gara lurraldean zehar. Ingurune naturala, jakintza ekologikoen sustapena, kontsumoa edo elikadura genero ikuspegiak zeharkatzen ditu.

3.2.2 Zeharkako gaitzaileak eta politikak

Egungo Plan Estrategikoan bi elementu jasotzen dira jarraibide estrategiko guztiarekiko zeharkakoak direnak, gaitzaileak eta politikak hain zuzen.

Alde batetik, zeharkako 2 gaitzaile definitzen dira, Foru Aldundiaren izaerari, batetik, eta zerga eta finantza politikei, bestetik, erreparatzen dizkietenak. Horrela, gaitzaile horien funtzioa Planean jasotzen diren helburu estrategikoak eta ekintza lerroak beren bertan gauzatu daitezzen da.



1. gaitzailea

Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra.

Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen eredian sakontzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoan oinarrituta, erakunde publikoekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin batera, politika publikoak eta haien ekosistemak berrikuntzatik indartzeko.



2. gaitzailea

Lurraldearen erronkei aurre egiteko zerga eta finantza politika.

Ongizatea babesteko eta lehiakor izateko zerga eta finantza politikak oinarritzko ardatz dira, kalitatezko enplegua sortuko duen ekonomia jarduera bultzatzeko eta ekitatez bildutako aberastasun soziala zerbitzu eta politika publikoen bitartez herriari itzultzeko.

Bestalde, zeharkako 3 politika definitzen dira; berdintasuna, euskara eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) ardatz dituztenak. Neurri eta era ezberdinean, politika horiek Planeko helburu estrategiko eta ekintza lerroak zeharkatzen dituzte, eta politika horien gauzatzea helburu eta ekintza anitzetan erortzen da:



1. politika

Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentu guztiek, organismo autonomoek, entitate publiko enpresariak eta horiei atxikitako foru sozietate merkantilek, zuzendaritza eta zerbitzuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar dute; horretarako, haien jardun eremuan neurri zehatzak programatu, ezarri eta horien jarraipena egin behar dute, dagozkien politika sektorialetan genero ikuspegia sartzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatze aldera. Horretarako, baldintzak eta gaitasunak ezarri behar dira.



2. politika

Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz.

Foru Aldundia gipuzkoarren erakunde publikoa den horretan lidergoa eta eredugarritasuna zor du. Horregatik, jarduera euskaraz izatetik haratago doan aldarria gordetzen du zeharkako politika honek. Horrela, anbizioz, euskara bera ardatz dela jardun eta ekingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak.



3. politika

Garapen jasangarri (GJH) eta bidezkoa sustatzeko balioak, ohiturak eta gaitasunak bultzatzeko ekimenak garatzea.

Foru Aldundiaren Plan Estrategikoak eta foru aurrekontuak Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzearekin duten lotura sendotzearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, pertsona, komunitatea, ingurumena eta etorkizuna politika publikoen ardatz gisa kokatzen dituzte. Horregatik, 2030 Agendari eta GJHei buruzko zaintza-, aurrerapen- eta hausnarketa-sistema partekatua berresten du.

4) 2024-2027RAKO ESTRATEGIA MARTXAN

Jarraian, zutabe bakoitzeko definitu diren helburu estrategikoak (19 guztira) nahiz esleitu zaizkien azalpenak jasotzen dira, azken horiek helburuaren nondik norakoan sakontzen dutenak.

Era berean, helburu estrategiko bakoitzari esleitzen zaizkion Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) zehazten dira, helburu horiek 2030 Agendan barna eramaten gaituzten ekarpena zehazteko. Beraz, hemen 2030 Agendak finkatzen dituen 17 helburuen ildoan aurreratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) egiten dieten ekarpena:

4. taula. Helburu estrategikoen ekarpena GJHei

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAK NAZIO BATUEN GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EGINDAKO EKARPENA		1 POBREZIA EKSGERRARAZTEA	2 EGONER EZ	3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	4 KALITATEKO HEZKUNTZA	5 GENDERO BERDINTASUNA	6 BERGARBIETA SANEAMENDUA	7 ENERGIA BERRISARRIA ERAGINTZASUMARRIA	8 LAN DUNIA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	9 NEUTROALDIA ERAGINTZASUMARRIA	10 GIBERNOGAZTAN ERAGINTZASUMARRIA	11 IRISERDI KANTONATE JASANGARRIA	12 ZIKLOAREN ERAGINTZASUMARRIA	13 ALDIAKETA ALDEKO EKINTZA	14 ITSASPEKO BIZITZA	15 LEHORREKO BIZITZA	16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	17 HELBURUAK ERAGINTZASUMARRIA
GJH																		
2024-2027 Planaren Helburu Estrategikoak		POBREZIA DESAGERRARAZTEA	GOSERIK EZ	OSASUNA ETA ONGIZATEA	KALITATEKO HEZKUNTZA	GENERO BERDINTASUNA	UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSAKORRA	LAN DUNIA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIGERTURA	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	ITSASPEKO BIZITZA	LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA
1. ZUTABEA	1.1 HE Pertsonen ongizatea																	
	1.2 HE Zaintza eta babesa																	
	1.3 HE Berdintasuna																	
	1.4 HE Gazteak																	



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAK NAZIO BATUEN GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EGINDAKO EKARPENA

GJH		1 POBREZIA EKINERKARAZTEA	2 GOSERIK EZ	3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	4 KALITATEKO HEZKUNTZA	5 GENDERO BERDINTASUNA	6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	7 ENERGIA HITSASGARRIA ETA ERENKIDEGARRIA	8 LAN DUNA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	12 EKORPENEA KONSUMO ARDURATSUAK	13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	14 ITSASPEKO BIZITZA	15 LEHORREKO SUSKINETEKO BIZITZA	16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOK	17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANITZA
2024-2027 Planaren Helburu Estrategikoak		POBREZIA DESAGERRARAZTEA	GOSERIK EZ	OSASUNA ETA ONGIZATEA	KALITATEKO HEZKUNTZA	GENDERO BERDINTASUNA	UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSAKORRA	LAN DUNA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	EKOIZPEN ETA KONSUMO ARDURATSUAK	KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	ITSASPEKO BIZITZA	LEHORREKO SUSKINETEKO BIZITZA	BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOK	HELBURUAK LORTZEKO ALIANITZA
2- ZUTABEA	2.1 HE Kultura demokratikoa																	
	2.2 HE Giza eskubideak																	
	2.3 HE Ehun komunitarioa																	
	2.4 HE Behar artistiko / kulturalak																	
	2.5 HE Euskara																	
3- ZUTABEA	3.1 HE Enplegua																	
	3.2 HE Ekonomia jasangarria																	
	3.3 HE Sektore ekonomikoak																	
	3.4 HE Zientzia eta berrikuntza sarea																	



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAK NAZIO BATUEN GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EGINDAKO EKARPENA

GJH		1 POBRETIA DESAGERRARAZTEA	2 GOSERIK EZ	3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	4 KALITATEZKO HEZKUNTZA	5 GENERO BERDINTASUNA	6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	7 ENERGIA HITSAMARRA ETA ENERGIAREN ERAGINTZA	8 LAN DUNIA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	12 EKORPENETA KONSUMO ARDURATSUAK	13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	14 ITSASPEKO BIZITZA	15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	17 HELBIRUAK LORTZEKO ALIANITZA
2024-2027 Planaren Helburu Estrategikoak		POBRETIA DESAGERRARAZTEA	GOSERIK EZ	OSASUNA ETA ONGIZATEA	KALITATEZKO HEZKUNTZA	GENERO BERDINTASUNA	UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSAKORRA	LAN DUNIA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA	HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	EKOIZPEN ETA KONSUMO ARDURATSUAK	KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	ITSASPEKO BIZITZA	LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	HELBIRUAK LORTZEKO ALIANITZA
4.ZUTABEA	4.1 HE Klima aldaketari aurre																	
	4.2 HE Basoak/zerbitzu ekosistemikoak																	
	4.3 HE Mugikortasuna																	
	4.4 HE Elikadura sistema																	
	4.5 HE Landa eremua eta herri txikiak																	
	4.6 HE Azpiegiturak																	
ZEHAZKAKO GAITZAILEAK	G.1 Foru Aldundia																	
	G.2 Zerga/finantza politika																	
ZEHAZKAKO POLITIKAK	P.1 Genero berdintasuna																	
	P.2 Euskara																	
	P.3 GJH																	

Iturria: Egileak egina



4.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA LERROAK

Jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoan definitu diren helburu estrategikoak (19 guztira) aurkezten dira. Horrekin batera, helburu bakoitzeko definitzen diren ekintza lerroak (107 guztira) zehazten dira, helburuen gauzatzea ahalbidetuko dutenak hain zuzen.

4.1.1 I. zutabea: *Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna*

Lehenengo zutabearen, ondoren jasotzen diren 4 helburu estrategikoak definitu dira; guztira 4 helburu, eta horien baitan jarraian azaltzen diren 29 ekintza lerro finkatu dira.

5. taula. I. zutabeko helburu estrategikoak

I. zutabea	
Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna.	
Helburu Estrategikoak	
<p>1.1 HE</p> <p>Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebetekak izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituena.</p>	<p>1.2 HE</p> <p>Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta personalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.</p>
<p>1.3 HE</p> <p>Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea.</p>	<p>1.4 HE</p> <p>Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea.</p>

Iturria: Egileak egina

1.1 HE	Helburuak, bere baitan, 7 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
--------	---

Norbanakoaren elementu psikologiko, emozional, sozial eta ekonomikoen arteko orekak ongizatearen oinarri dira. Horrela, osasun fisikoaz gain, ongizate emozional, psikologiko eta soziala bermatzeak, osasun hutsetik baino haratago doazen helburuak betetzen ditu. Horien guztien gauzatzea emakumeen eta gizonen artean era ezberdinean ematen den horretan, ongizatea bermatzeak ahalbidetuko duten politikak bertan txertatu beharko dute genero ikuspegi interseksionala. Horrela soilik izango baitugu gipuzkoar guztiok bizi proiektu asebateak garatzeko funtsezko elementua.

6. taula. 1.1 helburua






<p>1.1 helburua: Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebateak izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituen.</p>	
<p>EKINTZA LERROAK</p>	<p>1.1.1 ekintza lerroa: Herritarren ongizate emozionala lantzea, eta horren inguruko arazoez sentsibilizatzea eta artatzen laguntzea, prebentzioan eta pertsonalizazioan sakonduz.</p> <p>1.1.2 ekintza lerroa: Bizitza ohitura osasungarri eta aktiboa sustatzea, besteak beste, kirolaren, ariketa fisikoaren eta elikadura osasungarriaren onurei buruz sentsibilizatuz eta adikzioak bezalako errealitateen prebentzioan sakonduz.</p> <p>1.1.3 ekintza lerroa: Bizimodu eta ingurune osasungarriak sustatzea, autonomia, gaitasun funtzionala eta ongizatea ahalik eta gehien zaintzeko.</p> <p>1.1.4 ekintza lerroa: Nahigabeko bakardadea saihesteko politikak bultzatzea, ehun publiko, komunitario eta pribatuaren koordinazioaren saretzea bultzatuz.</p> <p>1.1.5 ekintza lerroa: Bizimodu independenterako eredua bultzatzea, laguntza eskaintza sare zabal, anitz eta egoki bat sustatuz.</p> <p>1.1.6 ekintza lerroa: Mendekotasunaren eta zaurgarritasunaren prebentzioan aurrera egitea, zerbitzu guztietan gehituz prebentzioaren ikuspegia, nahiz autonomia, inklusioa eta zaurgarritasun egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen babesa eta esku-hartzea.</p> <p>1.1.7 ekintza lerroa: Bazterkeria egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarte inklusioa lantzea, eta horientzako zerbitzuen prebentzioan, aurreikuspenean, pertsonalizazioan eta partaidetzan sakontzea. Ingurune osasuntsu eta komunitate saretu batek duten garrantzia aitortuz eta estrategietan txertatuz.</p>



1.2 HE Helburuak, bere baitan, 12 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.

Gizartearen zahartzearen eta egungo munduan sortzen diren gizarte premia berrien aurrean gizarte politikari bultzada berri bat emateko beharra dago, non, herritar zaurgarienei etxetik ahalik eta gertuen, eta ahal den bitartean etxean bertan, zaintza pertsonalizatua eskaini behar zaien. Hala nola berrikuntzan eta komunitatearen partaidetzan sakonduz, feminizazio handiko jarduera esparrua den horretan hori gutxitu eta ematen diren desberdintasunak zuzenduz, eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duen zerbitzu publiko nahiz pribatuen arteko bideragarritasuna bermatuz.

7. taula. 1.2 helburua

1.2 helburua: Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.	
	    
EKINTZA LERROAK	<p>1.2.1 ekintza lerroa: Adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran daudenen etxeko zaintza profesionalizatua eta arreta indartzea, etxebizitzarekiko eta familiarekiko hurbiltasuna bermatuz, eta egoitzetan ematen den arreta eredu etxekoiago baterantz eramatea, berrikuntza erabilzaileen zerbitzura jarritz eta zaintzaileen profesionalizazioa eta ongizatea bermatuz, besteak beste genero ikuspegia txertatuz zainketen desfeminizatorako.</p>
	<p>1.2.2 ekintza lerroa: Desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak indartzea.</p>
	<p>1.2.3 ekintza lerroa: Etxean zainketak jaso eta ematen dituztenen bizi kalitatea bermatzea.</p>
	<p>1.2.4 ekintza lerroa: Indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzea, eta biktimak artatzeko sistemaren pertsonalizazioan, partaidetzan eta biktimizazio ezean aurrera egitea, betiere, genero ahalduntzea lortze aldera.</p>
	<p>1.2.5 ekintza lerroa: Adin txikien babes sistemaren pertsonalizazioa areagotzea eta zaintza eredu berritzailea gizarte babeseko sarera zabaltzea.</p>
	<p>1.2.6 ekintza lerroa: Zainketen, gizarte zerbitzuen eta politiken ebaluzioa bultzatzea eta garatzea, eta bide horretan, horien eraginkortasuna, bideragarritasuna, zehaztasuna, eskalabilitatea eta jasangarritasuna lantzen jarraitzea, betiere kalitatezko zerbitzu publikoa ziurtatuz.</p>
	<p>1.2.7 ekintza lerroa: Zainketen kalitatea bermatuko duten tresnak diseinatzea eta gauzatzea.</p>
	<p>1.2.8 ekintza lerroa: Esparru soziosanitarioa garatzea, bi sistemen (sanitarioa eta soziala) koordinazioa bultzatuz, pertsonen arreta hobea eskaini ahal izateko.</p>
	<p>1.2.9 ekintza lerroa: Zainketen arloan programa eta irtenbide berritzaileak ezartzea.</p>



1.2 helburua: Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.



1.2.10 ekintza lerroa: Arreta ibilbide pertsonalatuak garatzea gizarte zerbitzu guztietan.

1.2.11 ekintza lerroa: Sare publikoaren eskaintza gizarte premien bilakaerara egokitzea.

1.2.12 ekintza lerroa: Gipuzkoaren izaera komunitarioa bultzatzea, zaintzaren ekosistema lokalak sendotuz.

1.3 HE

Helburuak, bere baitan, 4 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.

Gizarte bidezkoago eta berdinzaleago bat eraikitzeko nahitaezkoa da emakumeak bizitzaren arlo guztietan zigortzen dituzten estereotipo eta desorekak gainditzea. Horretarako, proiektu propioak eta esku-hartzeko eredu sistemikoa garatuko ditugu eragile guztiekin, bereziki emakume guztiekin eremu guztietan, tokiko erakundeekin eta berdintasunerako eragileen ekosistemako gainerako eragileekin.

8. taula. 1.3 helburua

1.3 helburua: Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea.



EKINTZA LERROAK

1.3.1 ekintza lerroa: Udalen baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.

1.3.2 ekintza lerroa: Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta haien arteko lankidetzeta eta elkarrizketa indartzea.

1.3.3 ekintza lerroa: Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.

1.3.4 ekintza lerroa: Lurraldean emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgaitasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.

1.4 HE	Helburuak, bere baitan, 6 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Politika integralak garatu behar dira gazteen parte hartzea eta ahalduz bermatuz. Emantzipazio politikak ahalbideratu behar dira gazteek beren bizi proiektuaren jabe izateko, belaunaldien arteko elkartasuna landuz.

9. taula. 1.4 helburua

1.4 helburua: Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea.					
EKINTZA LERROAK	1.4.1 ekintza lerroa: Gazteei zuzendutako politikak bultzatzea, fiskalitatea barne, bizi proiektu baten garapena ahalbidetuz.				
	1.4.2 ekintza lerroa: Gazteek politika publikoen definizioan, ezarpenean eta ebaluazioan duten parte hartzea indartzea, gazteen artean kultura demokratikoa sustatzeko proiektu parte hartzaileak sustatuz, hezkuntza munduarekin eta beste eragileekin lankidetzan, hala nola lehen eta bigarren mailako hezkuntzarekin eta unibertsitatearekin.				
	1.4.3 ekintza lerroa: Etapa ezberdinetan orientazioko, ikaskuntzarako eta bidelaguntzarako tresnak garatzea.				
	1.4.4 ekintza lerroa: Gazteentzat lurraldearen etorkizuneko erronka sozioekonomikoei erantzuneko dieten kalitatezko enpleguak garatuko dituzten aukerak sortzea, eta enplegarritasun-, moldagarritasun- eta erresilientzia-estrategiak bultzatzea, gazteei gizarte- eta lan-eremuan erabat garatzeko aukera emango dietena, sektoreka ematen diren emakumeen eta gizonen arteko desorekak aztertuz, berdintasuna sustatze aldera.				
	1.4.5 ekintza lerroa: Ehun sozialean, zibikoan eta komunitarioan sakontzea ahalbidetzen duten espazioak eta kanalak sustatzea. Gizartean erabateko eta bidezko parte-hartzea ahalbidetzeko, gaitasun pertsonalak, profesionalak eta sozialak eskuratuz eta garatuz, bizitza osoan zehar ikasteko sistema oso baten barruan.				
	1.4.6 ekintza lerroa: Landa inguruneen geroa bermatzeko, proiektuak indartu talentu gaztea erakarriz eta bertako proiektu estrategikoen definizioan eta garapenean inplikatur, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.				



4.1.2 II. zutabea: Komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia

Bigarren zutabearen, ondoren jasotzen diren 5 helburu estrategikoak definitu dira; guztira 5 helburu, eta horien baitan jarraian azaltzen diren 22 ekintza lerro finkatu dira:

10. taula. II. zutabeko helburu estrategikoak

II. zutabea Komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia.		
Helburu Estrategikoak		
<p>2.1 HE</p> <p>Herritarren kultura demokratikoan eta arduraren sakontzea.</p>	<p>2.2 HE</p> <p>Aniztasuna ardatz hartuta, giza eskubideetan oinarritutako politika publikoak indartzea.</p>	<p>2.3 HE</p> <p>Gipuzkoar gizartean ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz.</p>
<p>2.4 HE</p> <p>Behar artistiko eta kulturei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.</p>	<p>2.5 HE</p> <p>Euskara bizitzako arlo guztietan lehentasunez erabiltzea.</p>	

Iturria: Egileak egina

2.1 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Kultura demokratikoan, elkarrekiko errespetuan edota ardura duen komunitate baten eraikuntzan sakontzeak elementu anitz uztartzea eskatzen du, hala nola, izaera komunitarioa zabaltzea, gizarte eragileak garatzea, herritarrak entzuteko eta parte hartzeko espazioak izatea eta pertsonan gizarte kohesioa hobetzeko gizarte politikak aurrera eramatea.


11. taula. 2.1 helburua

2.1 helburua: Herritarren kultura demokratikoan eta ardura komunitarioan sakontzea.			
EKINTZA LERROAK	2.1.1 ekintza lerroa: Komunitatea osatzen duten herritar eta erakundeen artean balio eta kultura demokratikoak indartzen jarraitzeko ekimenak eta politika publikoak lantzea, gizarte erronkei modu kolektiboan heltzeko.		
	2.1.2 ekintza lerroa: Gizarte kohesioa hobetzeko politika publikoen estrategia integratuaren garapena bultzatzea.		
	2.1.3 ekintza lerroa: Udalen, elkarteen, eragileen eta herritarren ahalduntzeko eta elkarlanerako guneak indartzea, lankidetzazko gobernantzan sakontzeko.		

2.2 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Pertsona erdigunean jarrita, gizarte kohesionatu eta demokratiko gisa aurrera joan behar du Gipuzkoak. Horrek, etenik gabeko lana eta esfortzua eskatzen du, jakinda handiak direla munduan kontrako norabidean eragiten ari diren korrontek eta gertaerak. Elkarbizitzatik eta aniztasun politikotik haratago, bizikidetzaren demokratikoaren eta gizarte kohesioaren beste oinarri nagusietako bat da aniztasunaren eta diskriminazio ezaren balioa. Horrela, pertsonen berdintasuna eta askatasuna ardatz izango dira komunitate honetan.

12. taula. 2.2 helburua

2.2 helburua: Aniztasuna ardatz hartuta, giza eskubideetan oinarritutako politika publikoak indartzea.		
EKINTZA LERROAK	2.2.1 ekintza lerroa: Aniztasuna kontuan hartuz, kultura demokratikoa sustatzea, giza eskubideetan oinarrituta.	
	2.2.2 ekintza lerroa: Pertsonen integrazioa, diskriminaziorik eza eta bizikidetzaren sustatzea jarraitzea, edozein dela ere jatorria, hizkuntza, kultura, sexu orientazioa, erlijioa, ideologia eta gaitasun funtzionala, betiere, eta edozein taldetan emakumeen eta gizonen genero rol eta posizio desberdinak kontuan hartuz.	
	2.2.3 ekintza lerroa: Gizarte eragileekin batera garapenerako lankidetzaren bultzatzea lankidetzazko gobernantzan oinarrituta.	

2.3 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Komunitate sentipen eta lotura garrantzitsuak dituen lurraldea bada ere, gizartearen zahartzeak eta indibidualismoaren eta kontsumismoaren zabaltzeak izaera komunitario horren kontrako norabidean eragin dute. Ekimen komunitarioa sustatzeaz gain, erreleboa bermatzeko edo hirugarren sektorearen rola indartzeko lan egin beharko da bidezkoagoa den gizarte batean aurrera egiteko.

13. taula. 2.3 helburua

2.3 helburua: Gipuzkoar gizartearen ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz.				
EKINTZA LERROAK	2.3.1 ekintza lerroa: Gipuzkoar gizartearen aktiboa eta dinamikoa izan dadin eragiten duten ekimen, pertsona eta taldeak babestea.			
	2.3.2 ekintza lerroa: Lurraldean oro har eta, bereziki, gizarte eragileen, hirugarren sektore sozialaren eta elkarten artean belaunaldien arteko politika bat zehaztea, besteak beste belaunaldien berritzea eta boluntarioritza bultzatzen duena.			
	2.3.3 ekintza lerroa: Hirugarren sektore sozialeko erakunde eta elkarten formazio beharrei erantzutea, gizartearen ahalduntzeko helburuarekin.			

2.4 HE	Helburuak, bere baitan, 10 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	--

Kulturak eta euskal kulturak duen balioaren eta gizarte bezala eskaintzen dizkigun aukera guztien aurrean, beharrezkoa da kulturaren garapenean eta sorkuntzan elkarleen eta herritarren partaidetza sustatzea. Gainera, bide berriak zabaltzeaz eta txertatzeaz gain, beste batzuk errotzea eta sakontzea ere lehenetsi behar da; esaterako, emakumeen eta errepresentazio txikia duten eragileen jardura bistaratuz eta balioetsiz. Betiere, kultur zaletasuna zabaltzeko familian eta eskolan transmisioa eta heziketa bermatuz.

14. taula. 2.4 helburua

2.4 helburua: Behar artistiko eta kulturei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.		
EKINTZA LERROAK	<p>2.4.1 ekintza lerroa: Kulturaren balio sozial, komunitario eta ekonomikoa aldarrikatzea. Besteak beste, sormenean, gizartearen parte-hartze dinamiketan eta balio zein iritzi kritikoaren sustapenean duen indarra balioetsiz.</p>	
	<p>2.4.2 ekintza lerroa: Komunitate eta sareak sortu eta indartzen direla bermatzea kulturaren oinarria eraikiz, eta artisten sorkuntza eta horretarako babesak bermatzen jarraitzea, emakumeak eta errepresentazio txikiko gizataldeak gutxiengoak diren eremuetan berdintasunaren aldeko ekintza positiboak sustatuz.</p>	
	<p>2.4.3 ekintza lerroa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, emakume sortzaileei ikusgarritasuna ematean, gizarte inklusioan eta irisgarritasunean oinarritutako kultura bermatzea.</p>	
	<p>2.4.4 ekintza lerroa: Euskaratik eta euskarazkoa den kulturaren ekosistema sendotu, lankidetzak politika integralak eta koherenteak garatuz, sorkuntza eta zabalkundea esparru artistiko guztietan hobetzeko eta areagotzeko balioko dutenak, ikus-entzunezkoetan ahalegin berezia eginez.</p>	
	<p>2.4.5 ekintza lerroa: Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde.</p>	
	<p>2.4.6 ekintza lerroa: Belaunaldi gazteenekin eta sortzen ari diren dinamikekin bat egiten duten kultura adierazpen garaikideenak eta abangoardiakoak bultzatzea.</p>	
	<p>2.4.7 ekintza lerroa: Kulturaren eta teknologiaren arteko harremana sustatzea.</p>	

2.4 helburua: Behar artistiko eta kulturei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.



2.4.8 ekintza lerroa: Turismoaren, gastronomiaren, kulturaren eta euskararen arteko zubiak indartzea.

2.4.9 ekintza lerroa: Babesgune sozio funtzionaletan kultur sorkuntza euskaraz egiten dela bermatzea.

2.4.10 ekintza lerroa: Kultur industria eta sormenean inbertsioak areagotzea.

2.5 HE

Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.

Euskararen erabilera areagotzeko, biziberritzeko eta hizkuntza berdintasunean aurrera egiteko hurrengo oinarrien inguruan nahi da lan egin; transmisioan, kontzientziazioan, gizartearen aktibazioan, lankidetzan eta berrikuntzan.

15. taula. 2.5 helburua

2.5 helburua: Euskara bizitzako arlo guztietan lehenetsuz erabiltzea.



EKINTZA LERROAK

2.5.1 ekintza lerroa: Euskararen transmisioa eta erabilera bermatzea, euskara gizartearen kohesionatzeko hizkuntza bilakatzuz.

2.5.2 ekintza lerroa: Euskara biziberritzeko euskara, arlo sozioekonomikoa eta lurraldea lotuko dituen paradigma berria sortu eta bultzatzea, eraginkorrak diren ekimen esperimentalak elkarlanean sustatzea eta eskalagarriak direnak abian jartzea.

2.5.3 ekintza lerroa: Hizkuntza estrategia berriak proposatzea, ulermen unibertsala landuz, hizkuntza teknologiak sustatuz, komunikazio kanal berriak euskaraz bermatuz eta teknologia berrietaz baliatuz.

4.1.3 III. zutabea: Ongizatera bideratutako ekonomia, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena, lehiakorra eta berritzailea, aukeren sortzailea

Hirugarren zutabearen, ondoren jasotzen diren 4 helburu estrategikoak definitu dira; guztira, 4 helburu, eta horien baitan jarraian azaltzen diren 20 ekintza lerro finkatu dira:

16. taula. III. zutabeko helburu estrategikoak


III. zutabea Ongizatera bideratutako ekonomia, jasangarritasun hirukoitza bultzatzen duena, lehiakorra eta berritzailea, aukeren sortzailea.	
Helburu Estrategikoak	
3.1 HE Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrokatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.	3.2 HE Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea, lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.
3.3 HE Gaitasun eta aukera lehiakorak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.	3.4 HE Gipuzkoan puntako zientzia eta berrikuntza sarea sendotzen jarraitzea, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko eta transferitzeko.

Iturria: Egileak egina

3.1 HE	Helburuak, bere baitan, 5 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Pertsonak dira ekonomia ehunaren lehiakortasunaren aktibo nagusia; hori dela eta, enpleguaren kalitatea bermatu behar da. Era berean, kalitatezko enplegua izateak bermatzen du egungo eta etorkizuneko eraldatzeei aurre egitea eta ekonomia sare sendo eta aurreratua izatea.






17. taula 3.1 helburua

EKINTZA LERROAK	3.1 helburua: Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrotatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.	
	3.1.1 ekintza lerroa: Pertsonen ekarpenak, gaitasunak eta konpromisoa sustatzera bideratutako enpresaren kultura sustatzea, besteak beste, emakumeen errealitateei erreparatuz.	
	3.1.2 ekintza lerroa: Enpresek parte hartzeko ereduak sustatzea, kudeaketa, kapital eta emaitza mailetan.	
	3.1.3 ekintza lerroa: Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz.	
	3.1.4 ekintza lerroa: Bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen lanpostu prekarioak dituzten pertsonen, formazio eta enplegu ibilbide pertsonalizatua eskaintzea.	
	3.1.5 ekintza lerroa: Sortzen ari diren sektore berrien inguruko enplegua sustatzea, hala nola ekonomia berdeari lotutakoak.	

3.2 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Gaur egun, aurrekaririk gabeko egoera batzuk ditugu aurrean: larrialdi klimatikoa, biodibertsitatearen galera eta desberdintasunen hazkundera. Eta, erronka horien aurrean, ekonomia berdea, jasangarria, erresilientea eta inklusiboa eraikitzeko beharra lehenetsi behar da, eta, beraz, enpresei baliabideak eman beharko zaizkie trantsizio hirukoitzaren baitan egituratu daitezten.

18. taula. 3.2 helburua

3.2 helburua: Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.		    
EKINTZA LERROAK	3.2.1 ekintza lerroa: Enpresa ehunaren elkarlanerako eta eraldaketarako proiektuak sustatzea, produktu eta zerbitzuen zirkulartasuna garatuz, palankak izan daitezkeen aukerak identifikatuz eta negozio ereduak ekonomia zirkularrerantz bideratuz.	
	3.2.2 ekintza lerroa: Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.	
	3.2.3 ekintza lerroa: Ekonomia berdearen alorrean enpresen sorrera sustatzea.	

3.3 HE	Helburuak, bere baitan, 9 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Datozen erronka eta beharrei modu eraginkor eta lehiakorren erantzuteko gai izan gaitzen, lehiakortasuna indartu behar dugu, besteak beste, berrikuntzan, nazioartekotzean, formazioan eta kudeaketa aurreratuan, are gehiago murgilduta gauden eraldatzeen aurrean. Gipuzkoaren berrikuntza gaitasunak indartu nahian, teknologia eta ezagutza aurreratua enpresetara, eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainetara (ETE) transferitzeko beharra dago, azken horiek baitira ahalegin horretan zailtasun gehien dituztenak.

19. taula. 3.3 helburua

3.3 helburua: Gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.				
EKINTZA LERROAK	3.3.1 ekintza lerroa: Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko.			
	3.3.2 ekintza lerroa: ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea.			
	3.3.3 ekintza lerroa: Lehiakortasunerako azpiegituren ekosistema sendotzea.			
	3.3.4 ekintza lerroa: Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.			
	3.3.5 ekintza lerroa: Ekintzaitza eta barne-ekintzaitza sustatzea.			
	3.3.6 ekintza lerroa: Gipuzkoak dauzkan indarguneetan oinarrituz, etorkizuneko industrian estrategikotzat jotzen diren sektoreetan aurrera egitea, espezializazio adimenduna eta ekintzaitza sustatuz.			
	3.3.7 ekintza lerroa: Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.			
	3.3.8 ekintza lerroa: Enpresak errotzen eta hazten laguntzen dituzten politikak sustatzea.			
	3.3.9 ekintza lerroa: Landa ingurunekeo jarduera ekonomikoaren dinamismoa eta lehiakortasuna sustatzea eta aukera berriak bultzatzea.			

3.4 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Herri baten garapenean gero eta garrantzia gehiago hartzen dute, gaur egun, berrikuntzak eta garapen teknologikoak, ekonomiaren lehiakortasunerako faktore nagusienetakoak direlako eta, beraz, herritarren ongizatean ere ondorio positibo esanguratsuak eragiten dituelako. Horren jakitun, azken hamarkadetan I+G+b sarea indartzearen aldeko apustuak etengabeko ahalegina eskatzen du, zientzia funtsezko oinarria baita herri baten bizikidetzarako eta garapen demokratikorako.

20. taula. 3.4 helburua

3.4 helburua: Gipuzkoan puntako zientzia eta berrikuntza sarea sendotzen jarraitzea, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko eta transferitzeko.				
EKINTZA LERROAK	3.4.1 ekintza lerroa: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarean inbertsio berriak sustatzea eta enprekin elkarlanean burututako berrikuntza proiektuak sustatzea, beren beharretara egokitzeko nahiz merkaturatze aukerak sortzeko.			
	3.4.2 ekintza lerroa: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen esparruan, emakumeak erakarri, mantendu eta beren lidergoa sustatzeko esperientzia berritzaileak abiaraztea.			
	3.4.3 ekintza lerroa: Goi mailako ikertzaile eta talentuaren erakarpen eta errotzea, ibilbide profesionalak bultzatuz eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatuz.			



4.1.4 IV. zutabea: Lurralde jasangarria, berdea, erresilientea, orekatua, kohesionatua eta interkonektatua

Laugarren zutabearen, ondoren jasotzen diren 6 helburu estrategikoak definitu dira; guztira 6 helburu, eta horien baitan jarraian azaltzen diren 36 ekintza lerro finkatu dira:

21. taula. IV. zutabeko helburu estrategikoak

IV. zutabea	
Lurralde jasangarria, berdea, erresilientea, orekatua, kohesionatua eta interkonektatua	
Helburu Estrategikoak	
<p>4.1 HE</p> <p>Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.</p>	<p>4.2 HE</p> <p>Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea.</p>
<p>4.3 HE</p> <p>Mugikortasun intermodal eta interkonektaturako bidean aurrera egitea, eraginkorra, jasangarria, irisgarria eta segurua izango dena, pertsonengan oinarritua, eta lurraldearen egituraketa indartuko duena, garraioa herritarren zerbitzu publiko gisa sustatuz.</p>	<p>4.4 HE</p> <p>Gipuzkoak elikadura sistema jasangarria, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.</p>
<p>4.5 HE</p> <p>Landa ingurunea eta herri txikiak garatzeko dauden baldintzak sortzea eta aukerak indartzea, besteak beste, emakumeek bertan garatzeko dituzten espektatibak eta beharrak kontuan hartuz.</p>	<p>4.6 HE</p> <p>Azpiegitura nagusiak egokitzea eta modernizatzea eta, behar izanez gero, berriak sustatzea, lurraldearen garapen orekatuaren mesedetan.</p>

Iturria: Egileak egina

4.1 HE Helburuak, bere baitan, 10 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.

Klima aldaketari aurre egitea eta etorkizun jasangarria eraikitzea, komunitate, udalerrri eta lurralde mailan eragingo duen estrategia sistemiko baten bitartez eta, lankidetzan publiko-privatuaren arteko koordinazioz abiatuta. Karbonoa xurgatzeko ahalmena handitzea eta isurketak gutxitzea eta, zentzu berean, eraginkortasuna handitzea energia trantsizioa sustatzeko garaian, energia kontsumoak murriztea eta berriztagarriak hedatzea, 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzea bermatuz. Eta, betiere, erosketan berdean, eraginkortasunean eta autokontsumoan sakontzea, Foru Aldundia eredu garri izanik ahalgin horretan.

22. taula. 4.1 helburua

<p>4.1 helburua: Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.</p>						
EKINTZA LERROAK	<p>4.1.1 ekintza lerroa: Birziklapenean, berrerabileran eta hondakinen kudeaketa jasangarrian aurrera egitea.</p>					
	<p>4.1.2 ekintza lerroa: Lurraldeak karbonoa xurgatzeko duen ahalmena handitzea.</p>					
	<p>4.1.3 ekintza lerroa: Lurraldean kontsumo kontziente eta jasangarria sustatzea, zirkulartasunaren kultura bultzatuz.</p>					
	<p>4.1.4 ekintza lerroa: Foru Aldunditik erosketan publiko berdean sakontzen jarraitzea.</p>					
	<p>4.1.5 ekintza lerroa: Espazio degradatuak eta abandonatuak leheneratzea eta berreskuratzea sustatzea.</p>					
	<p>4.1.6 ekintza lerroa: Energia eraginkortasunean areagotzea eta energia berriztagarriak bultzatzen jarraitzea.</p>					
	<p>4.1.7 ekintza lerroa: Tokiko energia komunitateak sustatzea, lurraldeko herri eta industrietan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko.</p>					
	<p>4.1.8 ekintza lerroa: Klima aldaketari aurre egiteko lehen sektorea indartzea, lankidetzan publiko-privatua sustatuz.</p>					
	<p>4.1.9 ekintza lerroa: Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.</p>					

4.1 helburua: Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.








4.1.10 ekintza lerroa: Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntarioritza sustatzea.

4.2 HE	Helburuak, bere baitan, 6 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Beharrezkoa da basoen eta horien zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarrian ere aurrera egitea. Horretarako, basoen jabetza errespetatuz, bultzada publiko berri bat proposatzen da basoen jabe txikien jarduna errazteko eta, modu berean, lurraldeko basoen papera indartzeko bioekonomiaren alorrean duten garrantziaren ikuspegitik. Horrekin lotuta, babestutako natur inguruneen eta, oro har, ingurunearen eta biodibertsitatearen babesean, urrats irmoak ematen jarraitu behar da, lurraldeko natur balioen zaintza indartuz, hiri eremuetako eta landa inguruetako herritarrak naturarekin harremanean modu orekatuan bizi daitezten, mendiarekin eta naturarekin gozatzeko gogoari bidea emanez, baina, aldi berean, natur ingurunearen kontserbazioan aurrera eginez, ondorengo belaunaldiek ere gozatzeko aukera izan dezaten.

23. taula. 4.2 helburua

4.2 helburua: Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea.	
	    
EKINTZA LERROAK	4.2.1 ekintza lerroa: Baliabide naturalak zaintzea eta ekosistemak kudeatzea.
	4.2.2 ekintza lerroa: Gipuzkoako baso ondarea eta haren zerbitzu ekosistemikoak sustatzea eta balioan jartzea.
	4.2.3 ekintza lerroa: Baso sektorearen lehiakortasuna indartzea.
	4.2.4 ekintza lerroa: Natura ondarea babesteko jarduketak bultzatzea.
	4.2.5 ekintza lerroa: Ibaietako eta kostaldeko habitaten kontserbazioa bultzatzea, ekosistema horiek iragazkortzeko eta lehengoratzeko proiektuetan inbertsioak eginez.
	4.2.6 ekintza lerroa: Landa inguruneari eta baita kostaldeari ere eragiten dieten faktore klimatikoei eta beren inpaktuei buruzko ezagutza hobetzera bideratutako I+G+b.

4.3 HE	Helburuak, bere baitan, 6 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Mugikortasun jasangarri eta konektatua urrats berriak emateko anbizioa eta determinazioa dago, berrikuntza eta digitalizazio alderdietan oinarrituz, industrien eta azpiegitura jasangarrien garapenean nahiz lurralde osoko mugikortasunean sakonduz.

24. taula. 4.3 helburua

4.3 helburua: Mugikortasun intermodal eta interkonektaturako bidean aurrera egitea, eraginkorra, jasangarria, irisgarria eta segurua izango dena, pertsonengan oinarritua, eta lurraldearen egituraketa indartuko duena, garraioa herritarren zerbitzu publiko gisa sustatuz.		   
EKINTZA LERROAK	<p>4.3.1 ekintza lerroa: Garraio publiko lehiakor, erresiliente, jasangarri, irisgarri eta konektatua bultzatzen jarraitzea, lurralde oreka bermatuz eta pertsona guztien beharrak kontuan hartuz.</p> <p>4.3.2 ekintza lerroa: Bide azpiegitura seguru, adimendun, interkonektatu eta jasangarriak bultzatzen jarraitzea, eta beharrezkoak diren bestelako azpiegiturak gehitzea.</p> <p>4.3.3 ekintza lerroa: Jasangarriagoa eta elektrikoagoa den mugikortasun eredu baterantz aurrerapausoak ematen jarraitzea, eredu horren inguruan industria sustatuz, eta lurraldeko herritarrengan aldaketa kulturala eraginez.</p> <p>4.3.4 ekintza lerroa: Mugikortasun konektatua bultzatzea, IKTetan eta datuetan eta eredu berrien kudeaketan oinarrituta.</p> <p>4.3.5 ekintza lerroa: Pertsonen eta salgaien garraioaren intermodalitatean oinarritutako eredu baterantz aurrera egitea, garraiobideen arteko integrazioa eta koordinazioa sustatuz, eta landa auzo eta herrietako biztanleen mugikortasuna asetzeko.</p> <p>4.3.6 ekintza lerroa: Mugikortasun aktiboa indartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz, eta bidegorrien sarea eta bizitza osasuntsuaren aldeko sentibilizazioa indartuz.</p>	  

4.4 HE	Helburuak, bere baitan, 6 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Datorren legealdian lehen sektore lehiakor eta aurreratu baten aldeko ahaleginari eutsi nahi zaio, baserritarrek eta alorreko eragileekin elkarlanean, tokiko elikagaien ekoizpenerako aukerak garatuz, eta horrela klima aldaketaren aurkako borrokan, nekazal lur estrategikoen defentsan eta naturaren zaintzan duten funtzioa indartuz. Horretarako, baserritar eta abeltzainen lana babesten eta indartzen jarraituko da, horiek gizartearen eskutan produktu eskuragarriak, osasungarriak eta tokiko ezaugarria dutenak produzitu ditzaten.






25. taula. 4.4 helburua

EKINTZA LERROAK	<p>4.4 helburua: Gipuzkoak elikadura sistema jasangarria, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.</p>				
	<p>4.4.1 ekintza lerroa: Tokian tokiko elikadura sistema jasangarria bultzatzea.</p>				
	<p>4.4.2 ekintza lerroa: Lehen sektoreko aktibitatea indartzea eta balioan jartzea egungo Gipuzkoako landa paisaiaren defentsan, kanpo faktore anitzen eragina minimizatuz, landa eremuko ekonomia dibertsifikatuz eta baserritar profesional kopurua handitzeko erraztasunak emanez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz.</p>				
	<p>4.4.3 ekintza lerroa: Lehen sektoreko eragileen arteko lankidetzak sustatzea, horretarako beharrezkoak diren foro eta egiturak baliatuz.</p>				
	<p>4.4.4 ekintza lerroa: Tokiko elikadura kate jasangarria, eraginkorra, zirkularra eta bidezkoa eraikitzea.</p>				
	<p>4.4.5 ekintza lerroa: Elikagai eta gastronomia industrien lehiakortasuna sustatzea.</p>				
	<p>4.4.6 ekintza lerroa: Kontsumo arduratsua sustatzea, besteak beste, Gipuzkoan ekoiztutako elikagaien kontsumoa indartuz eta handituz.</p>				

4.5 HE	Helburuak, bere baitan, 3 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Lurralde oreka berdea gauzatzeko bidean, ezinbestekoak dira landa ingurune bizi bat eta herri txiki dinamikoak, non belaunaldi berriek ere beren bizitza proiektuak ongizate eta erosotasun osoz eraikiko dituzten, gaur egungo gizarte bizitzak eta ekonomiak eskatzen dituen zerbitzu eta azpiegiturak lurralde osoan berdintasunez hedatuz eta orekatuz.

26. taula. 4.5 helburua

<p>4.5 helburua: Landa ingurunea eta herri txikiak garatzeko dauden baldintzak sortzea eta aukerak indartzea, besteak beste, emakumeek bertan garatzeko dituzten espektatibak eta beharrak kontuan hartuz.</p>		    
EKINTZA LERROAK	<p>4.5.1 ekintza lerroa: Lurralde desorekak arintzea, landa inguruneke udalherri txikiak garatzeko baldintza materialak eta ez-materialak indartuz eta aukera berdintasunerako bizi kalitatea bermatuz.</p>	
	<p>4.5.2 ekintza lerroa: Landa Garapenerako Legeak ezarritako lan ildoak eta tresnak garatzea.</p>	
	<p>4.5.3 ekintza lerroa: Baserrien belaunaldi aldaketa gauzatzen laguntzea eta berriak sartzeko aukerak garatzea.</p>	

4.6 HE	Helburuak, bere baitan, 5 ekintza lerro jasotzen ditu, eta ondorengo testuinguruan kokatzen da.
---------------	---

Azken bi legegaldietan lurraldearen modernizaziorako eta lehiakortasunerako ezinbestekoak ziren hainbat azpiegitura egin eta sustatu dira. Besteak beste, erresilientzia, ingurumenaren jasangarritasuna eta gipuzkoarren bizi kalitatearen sustapena ardatz izan dira ekipamenduak eta azpiegitura garatzeko. Horretan, azpiegitura estrategikoak sustatzea eta garatzea funtsezkoa izango da lurraldeak jauzi kualitatibo bat emateko eta, aldi berean, lurralde orekatuagoa eta jasangariagoa izateko.

27. taula. 4.6 helburua

<p>4.6 helburua: Azpiegitura nagusiak egokitzea eta modernizatzea eta, behar izanez gero, berriak sustatzea, lurraldearen garapen orekatuaren mesedetan.</p>	
<p>EKINTZA LERROAK</p>	<p>4.6.1 ekintza lerroa: Lurralde aurreratu eta lehiakorragoa izateko azpiegitura ekosistema sendotzea eredu jasangarri baten barruan.</p> <p>4.6.2 ekintza lerroa: Eskualdeen arteko eta eskualde mailako orekak ahalbidetuko dituzten azpiegiturak garatzen jarraitzea.</p> <p>4.6.3 ekintza lerroa: Herri txikien biziraupena bermatzeko eta biztanleria errotzeko azpiegiturak sustatzea.</p> <p>4.6.4 ekintza lerroa: Biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea, udalerrri, elkarte, unibertsitate eta sektore ezberdinak inplikatur.</p> <p>4.6.5 ekintza lerroa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondasun higiezinaren ondarea eraginkortasunez erabili eta kudeatzea, lurralde orekaren eta lehiakortasunaren alde.</p>

4.2 ZEHARKAKO GAITZAILEAK ETA POLITIKAK

Jarraibide estrategikoaren atalean aurreratu bezala, honek badauzka 2 elementu helburu estrategikoekiko eta horien ekintza lerroekiko zeharkakotasun bat dutenak, hain zuzen zeharkako gaitzaileak eta politikak. Zeharkako gaitzaile horiek helburu eta ekintzekiko duten funtzioa gauzatu ahal izateko, jarraian azaltzen diren eta berezkoak dituzten ekintza lerroak biltzen dituzte, elementu bakoitzaren inguruko azalpen batekin batera:

4.2.1 Zeharkako gaitzaileak

Bi zeharkako gaitzaile definitu dira, eta, guztira, 9 ekintza lerro finkatu dira.

Lehenengo gaitzaileak, Foru Aldundiaren eraldaketa oinarri duenak, jarraian jasotzen diren 5 ekintza lerro ditu eta ondorengo testuinguruan kokatzen da: Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen eredian sakontzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoan oinarrituta, erakunde publikoekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin batera, politika publikoak eta haien ekosistemak berrikuntzatik indartzeko.

28. taula. 1. zeharkako gaitzailea

1. zeharkako gaitzailea: Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra.		16 BAKEA, JUSTIZIA ETA BIRBERRIKETA	17 HELBURUAK LERROZKO ALABATZA
EKINTZA LERROAK	G.1.1 ekintza lerroa: Etorkizuna Eraikizen markoan eta logikan, plan estrategikoa diseinatzea, hedatzea, eguneratzea eta ebaluatzea.		
	G.1.2 ekintza lerroa: Etorkizuna Eraikizek sustatzen duen lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailean sakontzea.		
	G.1.3 ekintza lerroa: Eraldaketa digitala sustatzea, datuen kudeaketa aurreratuan oinarrituz eta teknologiek ahalbidetzen dituzten irtenbide digital berriak txertatuz.		
	G.1.4 ekintza lerroa: Barne antolaketaren eraldaketa sustatzea, egiturei, profilei eta pertsoneri dagokionez.		
	G.1.5 ekintza lerroa: Foru Aldundiaren kudeaketa sistema eraginkorragoa garatzea.		

Landu den bigarren gaitzaileak 4 ekintza lerro ditu, eta zerga eta finantza politiken bidez lurralde erronkei aurre egitea ardazten du. Xehetasun gehiagoz hemen kokatzen da bigarren gaitzaile hau: Ongizatea babesteko eta lehiakor izateko zerga eta finantza politikak oinarritzko ardatz dira, kalitatezko enplegua sortuko duen ekonomia jarduera bultzatzeko eta ekitatez bildutako aberastasun soziala zerbitzu eta politika publikoen bitartez herriari itzultzeko.



29. taula. 2. zeharkako gaitzailea

2. zeharkako gaitzailea: Lurraldearen erronkei aurre egiteko zerga eta finantza politika.		1 POBRETZA DISEGERRARAZTEA	10 BERDINTASUNAK	11 HIRIETAN KENI-ALTAI JASANGARRIAK
EKINTZA LERROAK	G.2.1 ekintza lerroa: Aurrekontu-egonkortasuna, finantza-iraunkortasuna eta nahikotasun-finantzarioa sektore publikoan bermatzea.			
	G.2.2 ekintza lerroa: Ekitatea, progresibitatea eta jarduera ekonomikoaren sustapena hobetzera bideratutako zerga sistema bat diseinatzea.			
	G.2.3 ekintza lerroa: Zerga sistema modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, zerga kultura arduratsua sustatuz.			
	G.2.4 ekintza lerroa: Zerga politika modu zeharkakoan txertatzea helburu estrategikoen garapenerako.			

4.2.2 Zeharkako politikak

Jarraitzearen zeharkako elementuei dagokionez, gaitzaileez gain 3 zeharkako politika definitu dira, eta, guztira, 2 ekintza lerro finkatu dira.

Lehenengo politika, genero berdintasunean oinarritzen dena, jarraian zehazten den azalpenean kokatzen da: Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztiek, organismo autonomoek, entitate publiko enpresariak eta horiei atxikitako foru sozietate merkantilek, eta zuzendaritza eta zerbitzuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar dute; horretarako, haien jardun eremuan neurri zehatzak programatu, ezarri eta horien jarraipena egin behar dute, dagozkien politika sektorialetan genero ikuspegia txertatzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatze aldera. Horretarako, baldintza eta gaitasun egokiak ezarri behar dira.

30. taula. 1. zeharkako politika

1. zeharkako politika: Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea.		5 GENERO BERDINTASUNA	16 BAKEA, JUSTITZIA ETA INSTITUZIO SENDOKAK	17 MELBURIK LURTZEN ALIANTZA
EKINTZA LERROAK	P.1.1 ekintza lerroa: Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.			
	P.1.2 ekintza lerroa: Langileen eta erabaki guneetan jarduten duten eragileen barne prestakuntza modu planifikatuan sustatzea, genero ikuspegia foru politika guztietan txertatzeko.			

Bigarren politikak euskara du ardatz, Foru Aldundia harturik jarduera eremu bezala:

31. taula. 2. zeharkako politika

2. zeharkako politika: Foru Aldundiaren jardura izatea euskaratik eta euskaraz.



Foru Aldundia gipuzkoarren erakunde publikoa den horretan lidergoa eta eredugarritasuna zor du. Horregatik, jardura euskaraz izatetik haratago doan aldarria gordetzen du zeharkako politika honek. Horrela, anbizioz, euskara bera ardatz dela jardun eta ekingo du Foru Aldundiak.

Azkeneko zeharkako politiketan Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak daude, eta Planean dauden helburu estrategiko guztiak lan esparru honetan errotzen dira:

32. taula. 3. zeharkako politika

3. zeharkako politika: Garapen jasangarri (GJH) eta bidezkoa sustatzeko balioak, ohiturak eta gaitasunak bultzatzeko ekimenak garatzea.



Foru Aldundiaren aginte taulak eta foru aurrekontuak Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzearekin duten lotura sendotzearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, pertsona, komunitatea, ingurumena eta etorkizuna politika publikoen ardatz gisa kokatzen dituzte. Horregatik, 2030 Agendari eta GJHei buruzko zaintza-, aurrerapen- eta hausnarketa-sistema partekatua berresten du.

5) PLANA KUDEATZEKO EREDUA

5.1 GOBERNANTZA EREDUA

2024-2027 Plan Estrategikoa hedatzeko formulatu den gobernantza-ereduak aurrerapauso garrantzitsua proposatzen du balioak, mekanismoak eta lankidetzazko gobernantzan eta espermentazioan oinarritutako "egiteko modua" bultzatzeko. Proposatutako ereduaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergotik, lurraldearen erronkei erantzun nahi zaie, erakunde publikoekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin lankidetzan arituz. Planteamendu berri hori eraginkorra izan dadin eta helburuak lor daitezen, beharrezkoa da hori ahalbidetuko duten mekanismo batzuk abian jartzea. Alde batetik, elkarsorkuntzarako, elkarlanerako eta departamentu arteko lankidetzarako mekanismoak eta espazioak proposatzen dira, dauden inertiak hautsiz. Horretarako, antolaketa-aldaketa ahalbidetzen eta sostengatzen duten mekanismoak eta egiturak ezartzen dira, eta, aldi berean, beste administrazio batzuekin maila anitzeko gobernantza artikulatzea eta gizarte zibilarekin eta herritarrekin lankidetzan aritzea lortu nahi da, egungo ebaluazio-sistema sendotuz eta sozializazioa eta komunikazioa areagotuz, bereziki barne-komunikazioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa gauzatzeko 3 maila zehatzetan antolatzen da gobernantza ereduak: politikoa, estrategikoa eta operatiboa.

- [Maila politikoa](#), estrategia aurrera eramatearen lidergoa diputatu nagusiaren esku dago, Diputatuen Kontseiluarekin batera. Diputatuen Kontseiluak gutxienez hiru hilabetero aztertuko du Planaren bilakaera.
- [Maila estrategikoa](#), Estrategia Batzordeak mahai tekniko-politikoaren arduradun guztiak biltzen ditu diputatu nagusiaren lidergopean, zeinak errepresentazioa delegatu dezakeen. Estrategia Batzordea bi hilean behin bilduko da.

Gainera, arduradun guztien artetik 4 zutabe-koordinatzaile izendatuko dira, bakoitzak zutabe berdinean dauden mahai tekniko-politiko ezberdinak koordinatuko dituenak (beraien mahaiak gain). Lau arduradun horiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Estrategia zuzendari nagusia (azken horrek berrikuntza agenda Etorkizuna Eraikizun printzipioetan garatzeko koordinazio, erraztatzaile eta sustapen lanak egingo ditu) harreman estuan egongo dira, eta Diputatuen Kontseiluari Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoari buruzko informazioa emango diote, gutxienez, hiru hilabetero.

Mahai tekniko-politikoak helburu estrategikoen arabera egituratuta egongo dira eta mahai bakoitzaren ardurak izango da helburu estrategikoa eta ekintza larriak gauzatzeko. Horretarako, besteak beste, proiektu eragile edo erakusleen (lankidetzan, berritzaileak eta inpaktua dutenak) eta, oro har, proiektu estrategikoen diseinua eta jarraipena egingo dute.


Mahai bakoitzean arduradun bat dago, eta haietan departamentu ezberdinetako ordezkariak parte hartzen dute, mahaietan lantzen diren helburuekin zerkusia dutenak. Mahai tekniko-politikoak hilabetero bilduko dira.



- [Maila operatiboan](#) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren parte diren gehienak kokatzen ditugu, eta maila politikoak ezartzen duen aginduaren arabera eta maila estrategikoak bideratzen duen norabidean lan egingo dute.

Jarriaian irudikatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak proposatzen duen lankidetzako gobernantza irekiaren eredu, sektore publikoa kudeatzeko eta plana gauzatzeko:

7. irudia. Gobernantza eredu



Iturria: Egileak egina



Estrategia Zuzendaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren eta EBAREN kudeaketaren arduradun gisa, eredu berri honen koordinazio, erraztatzaile eta sustapen lanak bermatuko ditu, ikuspegi sistemiko batetatik. Kontuan izan behar da, prozesu esperimental eta berritzailea izanik, ibilbide luzeko aldaketa eta ikasketa prozesua izango dela, egiteko modu berriak eta irtenbide berrietan egokitzapenak eskatuko dituena.

5.2 JARRAIPENA, EBALUAZIOA, EGOKITZAPENA ETA KONTU-EMATEA

Azken urteotan kudeaketa aurreratuko hainbat dinamika eta erreminta jarri dira abian, eta azken legealdian plangintza erreminta eta planoen segimendua, ebaluazioa eta egokitzapena egiteko eta kontu-emateko prozesua indartu eta perfektionatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiak apustu gisa hautatutako kudeaketa efikaz eta eraginkorreko kultura berrian sakonduz. Aurreko Plan Estrategikoa departamentuko aurrekontuekin zegoen lotuta Emaizetara Bideratutako Aurrekontua (EBA) proiektuaren bidez, baita Etorkizuna Eraikizen ereduarekin ere, eta hiru denbora planoak kontuan hartzen ziren.

Legealdi berri honen hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategiko berriarekin gobernantza eredian jauzi kualitatibo bat eman nahi da, Plan Estrategikoaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa Etorkizuna Eraikizen markoan edo printzipioetan oinarrituta egingo delako. Horrek esan nahi du, datozen lau urteetarako Etorkizuna Eraikizen ibilbide orria Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa bera dela. Zentzu horretan, Plan Estrategikoaren diseinua eta zehaztapena Etorkizuna Eraikizen printzipioetan oinarrituta egin da (lankidetzazko gobernantza eta esperimentazioa edo berrikuntza) eta identifikatu diren erronkak eta helburu estrategikoak Foru Aldundi osoarenak dira eta ez departamentuena. Hala ere, aurreko urteetako dinamikarekin jarraituz, epe erdiko planifikazioa (Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa) urteko planifikazioarekin, aurrekontuarekin alegia, Emaizetara Bideratutako Aurrekontuak (EBA) tresnaren bitartez egiten jarraituko da. Planaren segimendu eta ebaluazio ereduak bi motatako adierazleen arabera antolatuko da: testuinguru eta emaitza adierazleen arabera hain zuzen ere.

- Testuinguru adierazleak testuinguru aldagai bat deskribatzeko oinarri sinple eta fidagarria eskaintzen duten datuak dira, lurraldeko informazioa emanez eta, aldi berean, helburuak jarraitzeko eta egokitzeko erreferentzia garrantzitsuak dira.
- Emaizta adierazleak Foru Aldundiaren esku-hartzearekin lotutako ondorioak kuantifikatzen dituzten adierazleak ditugu; nahiz eta hauen eraginpean kanpo faktoreek ere eragin dezaketen. Adierazle hauen baitan definitu diren helmugak legealdi osoko helmugak ditugu, alegia 2027rako finkatzen diren helmugak.

Ondoren, zutabeetan antolatutako helburu estrategikoen arabera, eta gaitzaileen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren segimendu eta ebaluaziorako definitutako adierazleak aurkezten dira. Adierazle horien azterketa Planaren bilakaeraren urteko ebaluazioaren txostenaren oinarri izango da, Plana dokumentu bizi gisa egokitzea ahalbidetuko duena.



5.2.1 I. zutabearen adierazleak

33. taula. Testuinguru adierazleak. I. zutabea

I. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
1.1 Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebetekak izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituena.	1	Bizitzarekiko asetasuna	Bizi kalitatea neurtzeko, hau osatzen duten dimentsioei erreparatu behar zaio, eta horietako bat ongizate pertsonala edo subjektiboa da. Norberaren ongizatearen inkestan neurtzen diren dimentsio ezberdinetatik eta helburu estrategikoari begira, bizitzarekiko asetasuna adierazlearen batz bestekoari erreparatuko zaio.	EUSTAT
	2	Jarduera fisikoa erregulartasunez egiten duten pertsona helduen zenbatekoa (%)	Adierazle honek aisialdian jarduera fisiko erregularra egiten duten 17 urtetik gorako biztanleen ehunekoa jasotzen du. Informazioa inkesta baten bidez jasotzen da, astean hainbat aldiz edota egunero egiten duen biztanleria identifikatuz.	GFA
1.2 Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta personalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.	3	Etxeke egonaldien tasa %	Mendekotasunagatik zerbitzuak edo/eta prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten 85 eta 89 urte bitarteko pertsonen artean etxean bizi direnen ehunekoa.	GFA
1.3 Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea	4	Genero berdintasunaren indizea	Genero Berdintasunaren Indizea adierazle sintetiko bat da, eta egun gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak haien ongizateari eta garapenari eragiten dieten alderdi garrantzitsu batzuk laburbiltzen ditu.	EUSTAT



I. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
	5	Indarkeria matxistaren gaitzespen soziala	Gipuzkoako biztanlegoak indarkeria matxistarekiko duen tolerantzia maila erakusten du adierazle honek.	Eusko Jaurlaritza
	6	Emantzipazio tasa	Emantzipatuta bizi den 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin bereko pertsona guztien arabera. Emantzipatutako pertsonak dira jatorriko etxebizitzatik kanpo bizi diren pertsonak, eta hori hartzen da oinarritzat	Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea, INE eta Eurostaten datuak oinarri hartuta
1.4 Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea	7	Antsietate eta depresio arazoaren prebalentzia gazteengan (%)	Antsietate edo/eta depresio arazoak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa jasotzen da hemen. Osasunarekin eta gazteen ongizate mailarekin lotutako adierazlea.	Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta
	8	Gazteen ehunekoa biztanleria osoarekiko (%).	Erronka demografikoaren aurrean, egoeraren oinarrizko adierazlea, gazteek (18-29 urte) biztanleria osoarekiko duten pisua %.	GFA



34. taula. Emaita adierazleak. I. zutabea

I. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
1.1 Pertsonen ongizate fisiko eta emozionala zaintzen eta prebenitzen duen gizartea bultzatzea, bizitza proiektu asebetek izan ditzaten aukerak ahalbidetzen dituena.	9	Eskola kiroleko programan izen-ematea	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskola kiroleko aplikazioan, urtebetean, aurrebenjamin, benjamin eta alebin kategorietan, partaidetza-lehiaketa eta kirol hastapen ibilbideetan jasotako izen-emateen kopurua.	99.825 pertsona (2023)	109.500 pertsona	GFA
	1.2 Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta personalizatuen, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea indartuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta.	10	Erabiltzaileen bizi kalitatea eta ongizatearen hobekuntza	Egoitzetako eta etxeko arreta jasotzen duten erabiltzaileen bizi-kalitatearen pertzepzioa inkesta berri baten bitartez jasoko da.	N/A	<i>Osatzen ari diren datuen arabera definitzeke</i>
11		Erreferentziako langileen figura duten zerbitzuen kopurua	Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko zerbitzuetan erreferentziako langile figura edukitzeak arreta personalizatua lortzen laguntzen du, beraz, adierazle honen bidez figura hau duten zerbitzuen kopurua kontabilizatuko da.	N/A	<i>Osatzen ari diren datuen arabera definitzeke</i>	GFA
12		Egoitzetara sartzeko pertsonen itzarote zerrenda	Egoitza batean sartzeko itzarote zerrendan dauden pertsonen kopurua jasoko da adierazle honetan. Horren bidez, beraz, sistemaren eskaintzaren eta eskaeraren arteko aldea neurtu ahalko da.	124 pertsona (2023)	100 pertsona	GFA
13		Zaintza ekosistemetan dagoen Gipuzkoako biztanleriaren ehunekoa (%)	Zaintza ekosistemaren bidez pertsoneri zerbitzu eta arreta eskaintza integrala hobetzea duela helburu, zaintza sare honen barruan dagoen biztanleriaren ehunekoa jasoko du adierazle honek.	N/A	<i>Osatzen ari diren datuen arabera definitzeke</i>	GFA



I. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
1.3 Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea	14	Berdintasun politikak garatzeko egitura egonkorra dituzten udalerrien kopurua	Foru Aldunditik udalen baldintzak indartzeko bidean, adierazle honek berdintasun politikak garatzeko egitura egonkorra dituzten udalerrien kopurua jasotzen du (Planifikazioa, langile espezializatuak eta aurrekontua).	<i>Ez eskuragarri</i>	<i>Ez eskuragarri</i>	GFA
1.4 Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea	15	Gazteen sustapenerako gastua	Gipuzkoako administrazioen (Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalak) gazte-sustapenerako gastua neurtzen du honek. Adierazle honen bilakaerak gazteengan egiten den gastuaren baitako joera jaso eta bistaratu dezake.	<i>Ez eskuragarri</i>	<i>Ez eskuragarri</i>	GFA



5.2.2 II. zutabearen adierazleak

35. taula. Testuinguru adierazleak. II. zutabea

II. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
2.1 Herritarren kultura demokratikoan eta ardura komunitarioan sakontzea.	16	Demokraziak Gipuzkoan duen funtzionamenduarekin pozik dauden pertsonen proportzioa (%)	Adierazle honek gipuzkoarrek Gipuzkoako demokraziarekin duten gogobetetzea jasotzen du, eta adierazlea sexuaren arabera bereizita dago.	EUSTAT
2.3 Gipuzkoar gizartean ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz.	17	Boluntariotza lanak egiten dituztenen zenbatekoaren hazkunde tasa (%), adin tarteetan eta sexuaren arabera	Boluntariotzak azken urteetan izan duen beherakadaren harira, eta hori suspertzeko egingo diren esfortzuen aurrean, adierazle honek boluntariotza lanak egiten dituztenen bilakaera jasoko du.	GFA
2.4 Behar artistiko eta kulturei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.	18	Kultur jardueren ekarpena BPGarekiko	Kulturaren balio ekonomikoa zenbateteko eta dimentsionatzeko adierazle honek kulturak ekonomiari egiten dion ekarpena neurtzen du.	EUSTAT – Kulturaren Euskal Behatokia
	19	Kultur enpleguaren ehunekoa (%) guztizko enpleguarekiko	Kultura arloari lotutako lanbideek Gipuzkoako enplegu guztiarekiko duten ehunekoa azaltzen du. Sektore honek enplegatzen dituen pertsonen ehunekoa alegia.	EUSTAT – Kulturaren Euskal Behatokia
2.5 Euskara bizitzako arlo guztietan lehenetsuz erabiltzea	20	Etxean euskaraz egiten duten biztanleen kopurua, sexuaren arabera banatuta	Euskaren erabilera esparru ezberdinetan neurtzen bada ere, etxean egiten den erabilera esanguratsuenetako bat da, eta azken hau jasoko da euskararen erabilera areagotzeko eta bide horretan estrategiak zein izan behar duten definitzeko.	Euskararen Adierazle Sistema



36. taula. Eraitza adierazleak. II. zutabea

II. ZUTABEAREN ERITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
2.1 Herritarren kultura demokratikoan eta ardura komunitarioan sakontzea	21	Parte-hartze prozesuetan parte hartu duen biztanleriaren ehunekoa (%)	Herritarrek parte-hartze prozesuetan izaten duten parte-hartzea biztanlegoaren kultura demokratikoaren adierazleetako bat da. Beraien parte-hartzea eta inplikazioa zenbatekoa den jakiteaz gain, datu hau sexuaren arabera ezberdintzea garrantzitsua da, badakigulako emakumeen eta gizonen jarduketa desberdina dela esparru honetan. Generoaz gain, parte hartzen dutenen profila bestelako irizpideen bidez bereizita izatea aberasgarria izango da (ikasketa maila esaterako).	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
	22	Parte-hartze prozesutan dagoen itzulketa kopurua	Lankidetzazko gobernantzaren heldutasun eta anbizio maila neurtu ahal izateko, eta bide horretan ematen diren aurrerapausoen zenbatekoa zein den balioesteko, parte-hartze prozesuen zehatze bat egingo da, parte-hartze prozesu ezberdinen sailkapenaren bidez, eta, hortik abiatuta, aurrera eraman izan direnen kopurua zehaztuz.	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
	23	Lurraldean lagundutako garapen ekimen komunitarioen zenbatekoa	Ardura komunitarioan sakontzen duen eragile batean so eginez, adierazle honek Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko garapen ekimen komunitarioei eman dien laguntza jasotzen du.	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
2.2 Aniztasuna ardatz hartuta, giza eskubideetan oinarritutako politika publikoak indartzea	24	Aniztasunaren zeharkakotasuna Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza giltzarrietan	Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoan aniztasuna eta eskubideen ikuspuntua zeharkako eginez burututako proiektu eta politika/plangintza kopurua.	N/A	Osatzen ari diren datuen arabera definitzeke	GFA



II. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
	25	Gipuzkoak egindako garapen-lankidetzako proiektuen kopurua	Adierazle honek gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuetarako abian jarri diren laguntza-programak, nahiz herrialde eta herri pobretuetan garapen-proiektuetarako abian jarri diren dirulaguntza kopurua neurtzen du.	32 (2023)	38	GFA
2.3 Gipuzkoar gizartean ehun komunitarioa indartzea eta berritzea, elkarlana eta parte-hartzea sustatuz	26	Hirugarren sektoreko elkarteak berritzera indartzeko bideratutako tresnak edota espazioak	Hirugarren sektorean jarduten duten elkarteak berritzen eta sendotzen direla neurtzeko, esparru horretara bideratu diren tresna eta espazioen kopurua jasoko da.	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
2.4 Behar artistiko eta kulturei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz	27	Plan estrategikoko zeharkako politikei lotutako eta kultura arlotik emandako dirulaguntzen ehunekoa (%)	Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntza guztietatik, zenbat eman dira hizkuntza eta genero berdintasunaren irizpideak betetzen dituztenei.	% 63 (2023)	%75	GFA
2.5. Euskara bizitzako arlo guztietan lehenetsuz erabiltzea	28	Euskararen biziberritzeari begira izaera esperimentalak duten eta lankidetzan garatzen diren proiektuen kopurua	Euskararen indarberritzean eta paradigma berriaren baitan aurrera egiteko Foru Aldunditik lankidetzan abian jarri diren proiektu esperimentalen kopurua neurtuko da.	N/A	<i>Osatzen ari diren datuen arabera definitzeko</i>	GFA
	29	Gipuzkoa Arigune egitasmoaren eraginpeko herritar kopurua	Ariguneak euskaraz erositazunez aritzeko guneak direlarik, tresna erabilgarria izan daitezke inertziak gainditzeko eta euskararen erabilera sustatzeko. Horrela, adierazle honek Arigune egitasmoaren bidez inpaktatutako pertsonen kopurua neurtzen du.	0 (2023)	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA

5.2.3 III. zutabearen adierazleak

37. taula. Testuinguru adierazleak. III. zutabea

III. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
3.1 Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrokatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.	30	Lanaren ageriko produktibitatea (euro/orduko)	Herrialde bateko produkzio prozesua lan unitate aplikatu baten errendimendua bezala definitzen den adierazlea da, ekonomiaren efizientiaren adierazlea alegia.	EUSTAT
3.2 Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.	31	Gipuzkoako enpresa sektoreak prozesuen ingurumen hobekuntzetan inbertitutako euroen aldakuntza (%)	Enpresek ingurumenari dagokionez inbertitu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak edo Eusko Jauriaritzak emandako espedienteetan tramitatutako zenbatekoaren arabera hazkundea jasotzen du.	GFA
3.3 Gaitasun eta aukera lehiakorrek sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.	32	Berritzaileak diren ETEak (%)	Produktuen berrikuntza funtsezko osagaia da berrikuntzarako, markatzaile berriak sor baititzakete eta lehiakortasuna hobetu. Produktu berritzaileen proportzio handiagoak berrikuntza jardueren maila handiagoa islatzen du. Ondorioz, adierazle honek berritzaileak diren ETEak islatzen ditu.	EUSTAT



III. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
	33	Esportazioak (BPGaren %)	Kanpo merkataritzaren estatistika eragiketaren bidez, Gipuzkoa abiapuntu edo helmuga duten kanpo merkataritzako eragiketak egiten dituzten enpresen merkataritza fluxuak ezagutu daitezke, eta erkidegoa Batasuneko testuinguruan posizionatu. Gipuzkoako kanpo merkataritzaren bilakaera koitunturala eta egiturazkoa zehaztea lurralde esparru desberdinetan eta ondasunen abiapuntu eta helmuga herrialdeen arabera, produktuen sailkapenak aintzat hartuta.	EUSTAT- ECOMEX
3.4 Gipuzkoan puntako zientzia eta berrikuntza sarea sendotzen jarraitzea, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko eta transferitzeko.	34	I+Gko gastua (BPGaren %)	Adierazleak biharko lehiakortasuna bermatzen duten eta, ondorioz, BPGaren hazkundea dakarten I+Gko inbertsio giltzarriak ebaluatzen ditu. Ikerketa eta garapen nazio gastu gordinaren barruan daudenak: I+Gko enpresa gastua, I+Gko goi mailako hezkuntza- gastua, I+Gko gastu publikoa eta irabazi asmorik gabeko sektore pribatuaren I+Gko gastua.	EUSTAT
	35	Ikertzaile kopurua (lanaldi osoaren baliokidea) milioi bat biztanleko	Adierazleak lanaldi osoan diharduten ikertzaileen kopurua adierazte du milioi bat biztanleko.	EUSTAT



38. taula. Emaitza adierazleak. III. zutabea

III. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
3.1 Enpleguaren kalitatea sustatzen duen ekonomia bultzatzea, enpresen erronkei lerrokatuta eta pertsonen beharrei erantzuten diena.	36	Dirulaguntza deialdi edota lehiakortasun programetan parte hartutako ETE kopurua	Adierazle honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik emandako dirulaguntzen deialdi edo lehiakortasunera bideratutako programen bidez parte hartu duten ETEn kopurua jasotzen du.	Ez <i>eskuragarri</i>	800	GFA
3.2 Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.	37	Ekonomia berdearen alorrean sortutako enpresa berrien kopurua	Ekonomiaren deskarbonizazioa gauzatzeko kutsagarriak ez diren iturri berriztagarrietan aurrera egiteko, lurraldeko enpresetan sakontzea eta sarea handitzea beharrezkoa izango denez, adierazle honek alorrean sortu diren enpresa berrien kopurua jasoko du.	N/A	8	GFA
3.3 Gaitasun eta aukera lehiakorrek sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.	38	Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%)	Foru Aldundiaren laguntzaren bitartez lurraldeko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunean aurrera egiten dela neurtzeko, adierazle honek sustatutako berrikuntza proiektuetan ETE onuradunen ehunekoa (%) jasoko du.	% 82 (2023)	% 85	GFA
	39	Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresak	Proiektu estrategikoei duten indarra eta trakzio efektua neurtzeko, adierazle honek Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresen kopurua jasoko du.	Ez <i>eskuragarri</i>	20	GFA



III. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK

HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
3.4 Gipuzkoan puntako zientzia eta berrikuntza sarea sendotzen jarraitzea, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko eta transferitzeko.	40	Sustatutako I+G proiektuen kopurua	Ikerkuntza eta garapena lurraldeko ehunaren lehiakortasuna areagotzeko gako den elementuetako bat izanik, adierazle honek Gipuzkoak sustatu diren I+G proiektuen kopurua jasotzen du.	80 (2023)	325	GFA



5.2.4 IV. zutabearen adierazleak

39. taula. Testuinguru adierazleak. IV. zutabea

IV. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
4.1 Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabilera aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.	41	Mendekotasun energetikoaren %	Mendekotasun energetikoak lurralde batek kanpotik inportatu behar duen energia primarioa adierazten digu. Besteak beste, mendekotasun honek dakarren zaugarritasuna murriztea helburu duten politika eta neurri ezberdinen eboluzioa jasotzeko, adierazle honek Gipuzkoak kanpora begira duen energia mendekotasuna islatzen du.	GFA
	42	Lurraldean berriztagarriak sortzea (%)	Adierazle honek Gipuzkoan sortzen den energia berriztagarrien ehunekoa jasotzen du. Beraz, jasagarritasunaren bidean nahiz energia mendekotasuna murriztearen aurrean emango diren pausoen adierazleetako bat izango da.	GFA
	43	BEGen murrizketaren %	Berotegi Efectuko Gasen murrizketa bi neurriren emaitza izan daiteke, CO2 xurgatzeko gaitasuna handitu delako edota gasen isuri bera jaitzi delako, adierazle honek guztira murriztu diren Berotegi Efectuko Gasen ehunekoa jasoko du.	Naturklima
4.2 Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasagarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea.	44	Gipuzkoako baso masaren CO2 xurgatze ahalmena	Adierazle honek lurraldeko basoak duten CO2 xurgatzeko ahalmena neurtzen du	Naturklima
	45	Baso zerbitzu ekosistemikoen balio ekonomikoa (€/ha/urteko)	Adierazle honen bitartez basoari lotutako zerbitzu ekosistemiko batzuk bistaratzen dira: klima erregulazioa, aisialdi eta paisaia, biodibertsitatea eta uraren xedapena.	EHUko ikertzaile-taldea



IV. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK

HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
<p>4.3 Mugikortasun intermodal eta interkonektaturako bidean aurrera egitea, eraginkorra, jasangarria, irisgarria eta segurua izango dena, pertsonengan oinarritua, eta lurraldearen egituraketa indartuko duena, garraioa herritarren zerbitzu publiko gisa sustatuz.</p>	46	Joan-etorriak biztanleko lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan, hiriarteko mugikortasunaren eremuan	Mugikortasuna eta zehazki garraio publikoaren erabilera handitzen dela egiaztatzeko erabili daitekeen adierazletako bat biztanleko hiriarteko mugikortasunaren eremuan zerbitzu publikoetan egiten diren joan etorrien kopurua dugu. Era berean, hiriarteko garraioan ibilgailu pribatuen kopurua lortu ahal izango da.	GFA
	47	Gipuzkoan garraioak eragindako berotegi efektuko gasen emisioa	Garraioaren sektorea kutsakorrenetako sektore bat izanik, adierazle honek Gipuzkoako lurraldean garraioak eragindako berotegi efektuko gasen kopurua jasotzen du.	Naturklima
<p>4.4 Gipuzkoak elikadura sistema jasangarria, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.</p>	48	Ustiategi berrien kopurua	Adierazle honek elikadura sistemaren ekoizpenaren ikuspegia jasotzen du urtean sortu diren ustiategi berrien kopurua kalkulatur.	GFA
	49	Emandako kalitate bereizgarrien kopurua	Adierazle honek elikadura sistemaren jasangarritasuna eta bertakotasuna neurtzen du, urtean eman izan diren kalitate bereizgarrien arabera, besteak beste Eusko Label edo Ekoizpen Integratuaren bereizgarriak izanez.	GFA
	50	Elikatze katearen legea ez betetzeagatik salatuak izan diren enpresen kopurua	Sistemaren jasangarritasuna bermatzen dela neurtzeko, adierazle honen bidez ekoizpen kostuaren azpitik merkaturatzeagatik salatuak izan diren enpresen kopurua jasotzen du.	GFA
	51	1000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa (%)	Lurraldearen oreka bermatzeko, landa inguruneak nahiz herri txikiak bizirik mantentzen direla ikusteko, kontrajarrita hirietako dentsitatea arinduz, 1000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa aztertuko da.	EUSTAT



IV. ZUTABEAREN TESTUINGURU ADIERAZLEAK				
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ITURRIA
4.5 Landa ingurunea eta herri txikiak garatzeko dauden baldintzak sortzea eta aukerak indartzea, besteak beste, emakumeek bertan geratzeko dituzten espektatibak eta beharrak kontuan hartuz.	52	Gipuzkoako establezimenduak, lurralde eremuen eta jarduera adarraren arabera (A10). 2008 – 2023, 1000 biztanleko	Landa ingurua eta herri txikiak bizirik mantentzeko eta zerbitzu nahiz azpiegituren aldetik egon daitezkeen abaguneak identifikatzeko ezarriko da adierazle hau.	EUSTAT
4.6. Azpiegitura nagusiak egokitzea eta modernizatzea eta, behar izanez gero, berriak sustatzea, lurralde garapen orekatuaren mesedetan.	53	Erroldatutako biztanleria, definitutako eskualdeen arabera	Adierazle honek Gipuzkoako udalerrri guztietako biztanleriaren zifrak erakusten ditu, udal-erroldetatik ateratakoak, sexuaren eta eskualdeen arabera bereizita.	INE
	54	Biztanleria landuna, lantokiaren eta zehaztutako eskualdeen arabera	Adierazle honek 16 urtetik gorako biztanleria landuna erakusten du, lantokiaren eta eskualdearen arabera. Honako adierazle hau, biztanleriaren kontzentrazioaren aurreko adierazlearekin gurutzatuz, eskualde bakoitzaren pisu erlatiboa eta bilakaera egiaztatu ahal izango dira, hau da, herritarrak non bizi den eta non lan egiten duen aztertzeko, eta, horrela, lurraldeko azpiegituren hedapena errealitate horrekin bat datorren ikusteko.	EUSTAT



40. taula. Eraitza adierazleak. IV. zutabea

IV. ZUTABEAREN ERAITZA ADIERAZLEAK						
HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
4.1 Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabilera aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.	55	Birziklatze tasa (%)	Hondakinen kudeaketa jasangarria hondakinen inguruko politiken oinarrietako bat izanik, adierazle honek birziklatutako hiri hondakinen ehunekoa (%) jasotzen du.	% 55 (2021)	% 60	GFA
	56	Energia komunitateen kopurua	Adierazle honek energia komunitateen kopurua neurtzen du, energia elektrikoa edo termikoa sortzeko ahalmenaren aprobetxamendu kolektiboa edo eraginkortasun energetikoaren hobekuntza bilatzen dutenak.	51	94	GFA
4.2 Basoen eta bere zerbitzu ekosistemikoen kudeaketa jasangarria garatzea eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zaintzea.	57	Gipuzkoan kudeatutako baso azalera (ha)	Adierazle honek baso kudeaketa jasangarria neurtzen du.	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
	58	Natur ingurunean egindako inbertsioa (€/ urteko)	Adierazle honen bitartez Gipuzkoako natur ingurunean burututako inbertsioa neurtzen da.	Ez <i>eskuragarri</i>	Ez <i>eskuragarri</i>	GFA
4.3 Mugikortasun intermodal eta interkonektaturako bidean aurrera egitea, eraginkorra, jasangarria, irisgarria eta segurua izango dena, pertsonengan oinarritua, eta lurraldearen egituraketa indartuko duena, garraioa herritarren zerbitzu publiko gisa sustatuz.	59	Mugikortasun Berriaren Misioren esparruan prototipo gauzatuen kopurua	Adierazle honek Lurralde Integrazioko Batzordea osatzen duten eragileek prozesuan egiten duten ekarpenaren jarraipena egiteko aukera ematen du, proiektu berritzaileak eta lankidetzakoak bultzatuz.	0 (2023)	5	GFA



IV. ZUTABEAREN EMAITZA ADIERAZLEAK

HELBURUA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
4.4 Gipuzkoak elikadura sistema jasangarria, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.	60	Elikagaien xahutzea (tn.)	Elikagaien ekoizpenak eta kontsumoak ingurumen inpaktua dute. Elikagaien xahutzea Gipuzkoako Hondakinen Planaren jardura ardatzetako bat izanik, elikagaien xahutzea tonetan jasotzen da.	123.000 tn. (2023)	100.000 tn.	GFA



5.2.5 Zeharkako gaitzaileen eta politiken adierazleak

41. taula. Emaita adierazleak. Zeharkako gaitzaileak

ZEHARKAKO GAITZAILEEN EMAITZA ADIERAZLEAK						
GAITZAILEA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
G.1 Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra	61	Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen garapenaren aurrerapen maila	Adierazle honek lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen eredian eman den garapen edo aurrerapen maila jasotzen du.	N/A	<i>Osatzen ari diren datuen arabera definitzeke</i>	GFA
	62	Digitalizazio planaren aurrerapen maila (eremuen arabera segmentatua)	Digitalizazio planak izan duen aurrerapen maila jasotzen du honako adierazle honek. Aurrerapen mailaren zehaztasun handiagoa izateko, datua esparru edo eremu ezberdinen arabera segmentatuko litzateke.	% 57	<i>%100 (2025) (2027ko helmuga berrikusteko Plan berriaren baitan)</i>	GFA
	63	Erretiroa hartuko duten teknikarien % 90ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuan parte hartzea	Foru Aldundiaren barne antolaketari begira, langileen erreleboa eta ezagutza ahalik eta era eraginkorrean gauzatu ahal izateko, belaunaldien ondorengotza prozesuan parte hartu duten pertsonen zenbatekoa erregistratuko da.	<i>Ez eskuragarri</i>	% 90	GFA
	64	Gobernantza aurre-hartzailearen eredura jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea	Adierazle honek Gobernantza aurre-hartzailearen eredura egokitutako jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea jasotzen du.	N/A	1	GFA
G.2 Lurraldearen erronkei aurre egiteko zerga eta finantza politika	65	Arau fiskalak betetzea	Foru sektore publikoan aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren betetze gradua erakusten du, epe luzerako politika publikoen garapen egonkor eta iraunkorari eusten jarraitzeko	N/A	1	GFA



ZEHARKAKO GAITZAILEEN EMAITZA ADIERAZLEAK

GAITZAILEA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
	66	Presio fiskala zerga itunduengatik	Politika publikoak aurrera eramateko Foru Ogasunak lortutako diru sarrera maila erakusten du, lurraldeko jarduera ekonomikoak sortutako balioaren gainean.	20 (2023)	22	GFA
	67	PFEZaren birbanaketa gaitasunaren indizea	PFEZ bezalako zergen birbanatze ahalmena funtsezkoa da gizarte batean desberdintasunak murrizteko. Horrela, progresibitatearen bidez, merkatuak ematen duen errenta banaketa zuzendu egiten du eta modu orekatuagoan banatu.	6,59 (2023)	6,30	GFA



42. taula. Emaidza adierazleak. Zeharkako politikak

ZEHARKAKO POLITIKEN EMAITZA ADIERAZLEAK						
POLITIKA	ZK.	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ABIAPUNTUA	HELMUGA	ITURRIA
P.1 Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea	68	Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak berdintasunean prestatzeko plan zuzentzaile bat diseinatzea eta ezartzea, profil eta lan arlo guztiak kontuan hartuta	Gipuzkoako Foru Aldundiak Pan Zuzentzaile bat landu eta ezarriko du, langileak berdintasunaren arloan prestatzeko. Horretarako, erakundea osatzen duten profilen ezaugarriak eta arloak hartuko dira kontuan.	N/A	1	GFA
	69	Diseinatutako Plan zuzentzailearen esparruan prestatutako pertsonen kopurua sexuaren arabera berezita	Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak berdintasunaren arloan prestatzeko diseinatutako Plan Zuzentzailearen esparruan, pertsonen prestakuntza planifikatua eta ordenatua egingo da.	N/A	<i>Ez eskuragarri</i>	GFA
P.2 Foru Aldundiaren jardueraz euskaratik euskaraz izatea eta	70	Foru Aldundiko lankideen arteko ahozko lan harremana nagusiki euskaraz izaten duten langileen kopurua, sexuaren arabera berezita	Adierazle honen helburua Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen arten euskararen erabileraren naturaltasun maila neurtzea da.	<i>Ez eskuragarri</i>	<i>Ez eskuragarri</i>	GFA



Orrialde hauetan xehetutako Plan Estrategikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ibilbide orri estrategikoa ezartzen du 2024-2027 aldirako. Gipuzkoa osatzen dugun eragile eta herritar denak elkarlanean, pertsonen ongizate osoa, lurralde jasangarria, ekonomia berritzailea eta lehiakorra, eta komunitate demokratikoa eraikitzen jarraitzeko abiapuntua eta norabide argia ezartzen du dokumentu honek. Eta, aldi berean, pertsonak erdigunean jarrita, foru erakundea osatzen dugun guztiok gure lurraldearen egungo eta etorkizuneko desfioei ekarpena egiten jarraitzeko koordinatu nagusiak eskaintzen ditu.

Bidezkoa da eskerrak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa ontzeko garaian, zuen ikuspegiak, iritziak eta kezak partekatu dituzuen herritar, eragile, Foru Aldundiko langile eta teknikari guztiei. Zuen ekarpenari esker, gipuzkoar gizartearen eta foru erakundearen beraren erronka nagusiak identifikatzeko garaian, nahiz aurrera begirako lehenetasun estrategikoak ezartzerakoan, lankidetzaz oinarri izan duen prozesu bat osatu dugu. Horrek guztiak dokumentua aberastu du eta edukien sakontasunean eragin nabarmena izan du, zalantzarik gabe.

Lan horri guztiari esker, Plan Estrategiko honek hainbat ikuspegitik jauzi bat ekarriko du Foru Aldundiaren egitekoan. Lehenik, jauzi bat edukien eremuan, pertsona guztien ongizate integrala sustatzeko helburua jarraibide estrategikoaren erdigunean kokatzen duelako eta horretan ere berritzaile izateko norabide argi bat ezartzen duelako; bigarrenik, departamentu bakoitzaren eskuduntzetara mugatutako lehenetasun estrategikoen eskema klasikoa gainditzen duelako, horrek zabaltzen dituen aukera guztiek; eta, hirugarrenik, lankidetzazko gobernantzaren logika Foru Aldundiaren jardunean are eta modu sendoagoan hedatzeko aukera ematen duelako, administrazio publikoa are eta ekintzaileagoa eta aurre-hartzaileagoa izan dadin eraldaketak sustatuz.

Plan Estrategiko bat, finean, hasiera besterik ez da. Lanari ekiteko abiapuntu bat. Datozen lau urte hauetan, dokumentu honetan finkatutako helburuak, politikak eta lerroak gauzatzeko lan egingo dugu. Lankidetzan, lau urte barru Gipuzkoa oraindik eta komunitate arduratsu, berdinzale, orekatu eta bidezkoagoa izan dadin, pertsona guztien ongizate osoa zaintzen duen ekonomia lehiakor, berritzaile eta jasangarria duena, eta osotasuna eta zentzua duten etorkizuneko proiektuak garatzeko aukerak sortzen dituen.

Elkar hartuta, ekin diezaigun elkarlanari, ekin Gipuzkoari.

